KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN 2025eko Abenduaren 2ko BILKURA AKTA LABURRA

Presente ziren: Christian Devèze, Auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Didier Irastorza, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, ordeak, Corinne Othatceguy, Jean-Paul Eyherachar, Isabelle Ayerbe, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Carmen Gonzalez, Joana Lacarra, Jean-Pierre Gogny, François Hayet, Peio Etxeleku, Jean-François Lacosta, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy, herri kontseilariak.

Ezin etorriak: Yolande Huguenard, Marie Aristizabal, ordeak, Jean-Jacques Lassus, Sébastien Carre, herri kontseilariak.

Ahalordeak: Yolande Huguenard-ek Eliane Aizpururi; Maria Aristizabalek Peio Etxelekuri; Jean-Jacques Lassus-ek. Vincent Goytinori; Sébastien Carre-k Christian Devèze-ri.

– Saioko idazkariaren izendapena.

Presente ziren kideek aho batez izendatu dute Joana Lacarra anderea saioko idazkari izateko.

Herriko kontseilukideen kopurura..... 29
Presente diren herriko kontseilukideak 25
Ahalorde kopurua..... 4
Hor ez direnen kopurua..... 29

– Solasgaiak:

001 – 2025eko agorrilaren 20ko Herriko Kontseiluaren aktaren onespena. 2
002 – Auzapezak, Herriko Kontseiluaren delegazioz hartu erabakien komunikazioa. 3
003 - Arnaga: Laranjategiaren eraberritzea - finantzazio planaren onespena 4
004 - Arnaga: Laranjategia ustiatzeko Zerbitzu Publikoko Delegazio baten sortzea 5
005 - Petanka zelaiaren estaltzea: finantzazio planaren onespena. 8
006 - THP: 2. aldaketa. 9
007 - SCI Akikam: Hipotekaren altxatzea. 19
008 - Jendarmeriaren karrika itsua: lur-sailak jabari publikoan txertatzea. 20
009 - A - Herriko apartamenduen alkairu sarien salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti. 21
009 - B - Zerbitzu anitzeko zentroko bulegoak alotazeko salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti 21
009 - C - Leku eskubideen eta jabari publikoa okupatzeko salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti.. 22
009 - D - Lanen egiteko jabari publikoa okupatzeko salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti. 22

009 - E - Hatu merkatuko leku eskubideen salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti. 23
009 - F - Bixkotx Bestako erakusketarientzako salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti. 23
009 - G - Herri Bestetan jabari publikoa okupatzeko salneurriak 2026ko urtarrilarne 1etik goiti. 24
009 - H - Arnaga eremua alokatzeko salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti. 25
009 - I - Liburu azokaren salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti. 26
009 - J - gelen eta materialaren alokatzeko salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti. 26
009 - K - Musika trenak alokatzeko salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti. 28
009 - L - Autokarabana gunearen salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti. 29
009 - M - Fotokopien salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti. 29
009 - N - Baratzeen hitzroduen salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti. 29
010 - Essor Cycliste Basque lasterketa: 2026ko hitzarmena. 30
011 - AGAZ: Pasaporte Hiritarra dispositiboaren ezartzea - AIGA pasatzeko herriko beka. 31
012 - Enedis: pasaia eskubideko hitzarmena Erdalasko Larria lekuan. 34
013 - Chêne programaren baitako lankidetza hizatrmena. 35
014 - Euskal Elkargoa: Karga Transferituen Ebaluaziorako Tokiko Komisioaren (KTETK/CLECT) txostenen onespena. 36
015 - Euskal Elkargoa: irisgarritasun datuaren bilketarako hitzarmena. 37
016 - Euskal Elkargoa: Ezker pareta eraberritzeko eskuhartze funtsen esleipenaren onespena. 38
017 - Urgentziazko etxebizitza: hitzarmena Soliha-rekin. 38
018 - Artxiboen kudeaketa: Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroarekiko hitzarmena. 41
019 - A - Langileria: giza baliabideen kudeatzaile lanpostu baten sortzea. 42
019 - B - Langileria: Eremu Publikoaren Zaintza Langile (EPZL/ASVP) enplegu baten sortzea 43
020 - Langileria: Gizarte Geriza Osagarria 2026ko urtarrilaren 1etik goiti. 44
021 - Programa Baimen eta Ordainketa Kredituen (PB/OK - AP/CP) eguneratzea. 47
022 - Aurrekontu nagusia: 1. erabaki aldatzailea. 54
023 Inbertsio gastuen kredituak aurretiaz irekitzea. 58
024 - Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia: 2. erabaki aldatzailea. 59
025 - Pirinio Atlantikoetako SPL: 2024ko urteko txostenaren aurkezpena. 60
026 - L'Aiglon zinema: 2024ko ustiapen txostenaren aurkezpena. 61

001 – 2025eko agorrilaren 20ko Herriko Kontseiluaren aktaren onespena.

ERABAKIA:

2025eko agorrilaren 20ko saioaren akta Herriko Kontseiluaren bozkara eman da.

Herriko Kontseiluak, eztabaidatu eta gero, aho batez:

ONARTU DU 2025eko agorrilaren 20ko Herriko Kontseiluaren Akta.

002 – Auzapezak, Herriko Kontseiluaren delegazioz hartu erabakien komunikazioa.

ERABAKIA:

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluetan xedatua denaren arabera, Auzapezak Herriko Kontseiluak 2020ko ekainaren 11an onartu dizkion delegazioen baitan hartu dituen erabakien berri eman behar du:

- Hilerriko kontzesioen emateko eta berriz hartzeko erabakiak, 2025eko agorrilaren 3tik 2025eko azaroaren 15era:
- 2025eko irailaren 8a: Herriko aurrekontu nagusian altxortegi lerro berri baten irekitzea, 300 000 €ko atalasea gainditu gabe.
- 2025eko irailaren 11a: Caisse d'Epargne Aquitaine Poitou Charentes banketxean 1 600 000 €ko mailegu baten izenpetzea.
- 2025eko irailaren 15a: Herriko aurrekontu nagusian altxortegi lerro berri baten irekitzea, 300 000 €ko atalasea gainditu gabe. 2025eko irailaren 8ko erabakia deuseztatu eta ordezkatzen du.
- 2025eko urriaren 21a: Norbanako batek arkatz eta tinta margolan baten dohaintza onartzea, 183 € baloratua.
- 2025eko urriaren 20a: 2025-2029ko eskaera-orrien esparru-hitzarmenaren baitan obra merkatu baten izenpetzea, errepide lanen egiteko eta errepide-seinaleen ezartzeko.
- 2025eko urriaren 29a: Arnagako Laranjategiaren eraberritze proiektuaren lanentzako merkatua izenpetzea, 365 083,06 € zergaz kanpoko zenbatekoarekin.

Herriko Kontseiluak, aho batez:

AITORTZEN DU Auzapezak Herriko Kontseiluaren delegazioz hartu erabakien berri ukan duela.

HITZ HARTZEAK:

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du zergatik 1,6 milioi euroko mailegua izenpetu den Caisse d'Epargne bankuan, erabakia harrigarria iruditzen baitzaio hauteskundeak baino lau hilabete baizik ez direlarik falta. Mailegua beraren egokitasuna zalantza ezarri du, jakinez, agintaldi osoan zehar herriak epe laburreko altxortegi aurrezkiak egin dituela.

Auzapezak oroitarazi du mailegua kontu-ekitaldi hasieran bozkatu zen inbertsioen aurrekontuan kokatzen dela, egin diren inbertsio ekintza guztiak orekatzeko, eta ez dela ekintza zehatz bat. Zehaztu du maileguak ez direla inbertsioak egin ahala izenpetu, baina ekitaldi bukaeran.
IEHko ToLFEPak Fagalde eraikina herriak eskaturik eskuratu duela dagokion finantzazio mekanismoarekin. Azaldu du, hasieran aurreikusi zen maileguaren zenbatekoa aurrezki kontu batean ezarri zela, erosteko opzioa gertatuko zenerako finantza gastuen ordaindu ahal izateko izaera bereko finantza-mozkinekin, eta ToLFEPak mailegatu kapitala itzultzeko.
Gehitu du, Kanbo herri bakarrenetakoa dela mailegatu dituen funtsak atxiki ahal izan dituena inbertsio nagusi baten eskuratzeko.

003 - Arnaga: Laranjategiaren eraberritzea - finantzazio planaren onespena

ERABAKIA:

Auzapezak oroitarazi du azken hamar urteetan herriak bere ondarea balioan ezarri nahi izan duela. Borondate horren adibideak dira herriak gauzatu dituen hainbat historia eta ondare proiektu, hala nola San Laurendi elizako organo berria, Arnaga etxeko aitzinaldeen margotzea.

Horiek horrela, eta bere ondarea zaintzeko eta Arnaga etxeko bisitarien esperientzia hobetzeko asmoz herriak obra koordinatzaile talde baten esku ezarri du Laranjategiaren eraberritze eta berregituratze programa gogoetatzea.

Lanen helburua da eraikina airetik eta uretik babestea eta te-saloi bat egitea. Ustiapenaren baldintza juridikoak geroago aztertuko dira.

Eskualdeko Kultur Gaietarako Zuzendaritzari (DARC) eta Eskualdeari diru-laguntzak eskatzeko proiektuaren finantzazio plana adostu behar dugu.

Lan horren arabera, proiektuaren kostua 495 000 € baloratu da, zergaz kanpo.

Zenbatekoa honela banatzen da:

Gastuak		**Sartzeak**	
Lanak	443 425 €	DRAC - proiektuaren %40	198 004 €
		Eskualdeko Kontseilua 400 000 €tik %15	60 000 €
Obra koordinazioa	34 284 €	Auto-finantzazioa - %48	237 006 €
Ikerketa eta kontrol gastuak	16 205 €		
Lanen kontratuei buruzko argitalpenak	1 096 €		
OROTARA	**495 010 €**	**OROTARA**	**495 010 €**

Herriko Kontseiluak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU gorago zehaztu den finantzazio plana.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari gai honi buruzko dokumentu oro izenpetzeko, diru-laguntzak eskatzeko, 2020ko ekainaren 11ko Herriko Kontseiluak eman zion delegazioaren arabera, eta lehengo taulan agertzen bezala.

Abstentziora jo dute: Peio Etxeleku (ahalordearekin), Jean-François Lacosta, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy.

HITZ HARTZEAK:

Auzapezak azaldu du aipatu lanak hasierako aurrekontuan txertatu direla eta berriz aurkeztuko direla programa baimenak eta ordainketa kredituak aztertzerakoan. Zehaztu du herriak Kultura Gaietarako Eskualdeko Zuzendaritzari (DRAC) finantzazio plan bat helarazi behar ziola.
Oroitarazi du DRACaren bisita bat aurreikusia zela Frantziako Kultura Ministroa etortzekoa zenean, ministro haren ekimenez. Herriari jakinarazi zaio lanen diru-laguntza, hasiera batean murritzagoa zena, azkenean %40koa izanen dela. Ondorioz, finantzazio

plana egokitu dugu eta DRACaren diru-laguntza 198 000 €koa izanen da Laranjategiaren zaharberritzeko. Zehaztu du aldaketak soilik finantzazio planari eragiten diola.

Philippe Bacardatz jaunak auzapezari galdetu dio ea DRACeko ordezkaririk izan ote den bertan, zeren ikusi baititu, sare sozialetan, argazkitan DRACeko ordezkaria Arnagako elkarteko kideekin.

Auzapezak erantzun dio hasieran Frantziako Kultura Ministroaren etortzearekin batera aurreikusia zen bisita ez dela egin, ministroa ez baita lekua ikustera jin. Zehaztu du gerora DRACeko ordezkariak Arnagara hurbildu badirela ez dela izan bisita ofizial haren baitan izan.

004 - Arnaga: Laranjategia ustiatzeko Zerbitzu Publikoko Delegazio baten sortzea

ERABAKIA

Auzapezak honakoa aurkeztu du:

Arnaga Etxea, Edmond Rostand-en etxe izana, Monumentu Historiko sailkatutako museoa da, eta Euskal Herriko kultur gune nagusia, zeinak urtean 80 000 bisitari hartzen baititu. 1969an herriaren jabetza bilakatua, bertako kultur zerbitzu publikoa da.

Laranjategia, museoaren esparruan sartzen dena (museoko bisitariei irekia), herriko jabari publikoa da (Frantziako Estatu Kontseiluaren 2011 n° 342908 « Château de Versailles ») ebazpenaren ildotik.

Laranjategiaren zaharberritzearen baitan (Eraikin Historikoen Arkitektoak eta DRACak lanak kontrolaturik), herriak kalitatezko te-saloia ezarri nahi du bertan museoko bisitarientzat, museoko esperientziarekin koherentzian.

Eskaintza berriak zerbitzuaren kalitatea hobetuko luke, harreraren erosotasuna hobetuz eta museoaren bisita giro lasaigarri batean eta testuinguru historikoan.

Halaber, herriari bere jabari publikoa balioan ezartzeko aukera emango lioke ekonomia-eragileen aholkuei esker.

Hainbat ustiapen aukera aurreikusi dira (BEA, zerbitzu merkatua, okupatzeko hitzarmena edo zerbitzu publikoaren delegazioa). Herriaren beharrak kontuan izanik, badirudi zerbitzu publikoaren delegazioa dela formula egokiena, zeren betebeharrak ezar diezazkiokeelako hartzaileari, eta gainera hartzaileak zerbitzuaz egiten duen kudeaketa hurbilagotik kontrola dezakeelako.

Izan ere, zerbitzu publikoaren delegazioa edo kontzesioa honako arrazoiengatik onetsi da:

- Kanpoko gaitasun beharrezkoak: ondare gune batean kokaturiko te-saloi baten ustiapen profesionala.

- Ustiapen arriskuaren eskualdatzea: delegaziodunak jardueraren etekinetatik aterako ditu bere irabaziak (negozio bolumena +/- 200 000-400 000 € zergak barne urtean.)

- Jabari publikoa okupatzeko hitzarmenak ez bezala, zeinak egiazko eskubideak ematen baititu, zerbitzu publikoaren kontzesioarekin Herriak hartzaileak dituen betebeharren gaineko kontrol zorrotza egin dezake (bereziki zerbitzu publikoari datxizkionak).

- Lege esparrua: Frantziako legediko zerbitzu publikoen kontzesioa (eskaera publikoaren kodeko L.1121-3 artikulua eta Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.1411-1 artikulua).

Honakoak dira delegazioan emanen den zerbitzu eskaintzaren ezaugarriak:

- Xedea: Te-saloi baten kudeaketa eta ustiapena (50 leku barnean eta 30 terrazan)
- Aurreikusitako iraupena: 6 eta 12 urte artean. Iraupena kontsulta txostenean zehaztuko da, eta hartzaileak eginen dituen inbertsio proposamenen arabera egokitzen ahalko da.
- Herriko zerga berezia: gutxieneko finkoa (15 000 €/urte) eta zati aldakorra (gutxienez negozio bolumenaren % 18) zeina kontsulta txostenean egokitzen ahalko den, eta hautagaien proposamenen arabera egokitzen ahalko dena negoziazioen buruan.

Frantziako LKKO L. 1411-1 artikuluaren arabera, lurralde erakundeetako biltzar erabakitzaileek, hots Herriko Kontseilua, zerbitzu publikoaren delegazio printzipioari buruzko erabakia hartu behar dute.

Txostena gehitu zaio honako erabakiari. Kudeaketa modua behin erabaki eta, herriak du lehia deialdi publikoa egin beharko. Urrats horren ondotik hautagai bat atxikiko du Zerbitzu Publikoaren Delegazio batzordeak (2020ko ekainaren 11ko erabakiz izendatua).

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU Arnaga etxeko Laranjategiaren kudeatu eta ustiatzeko zerbitzu kontzesio formako zerbitzu publikoko delegazio baten ezartzeko printzipioa.

ONARTU DU eranskinean den aitzin-txostenean zehazten diren delegazioaren ezaugarri nagusiak.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, Lurraldeko Gizarte Batzordera jotzeko eta enpresen kontsultarako dokumentua idazteko.

Abstentziora jo dute: Peio Etxeleku (ahalordearekin), Jean-François Lacosta, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy.

HITZ HARTZEAK:

Bacardatz jaunak galdetu du zein den herriarentzako zerbitzu publikoko delegazioa (ZPD) egiteko interesa, Laranjategian izanen den te-saloiaren ustiatzeko, eta galdetu du herriaren egitura kudeatzailea ez ote den aukera bat.

Auzapezak erantzun dio herriak oraingoz ez duela horretarako langilerik eta delegazioaren bidez ustiapena molde argi eta iraunkorrean baldintzatzen ahalko dela, bereziki Laranjategia irekiko denean. Zehaztu du ez dagoela merkatu-ikerketarik, baina ZPDari esker koherentziaz kudeatzen ahalko dela eta ekitaldiak antolatzeko aukera emanen duela, baita kongresuak edo ekitaldi puntualak, Zalditegiaren ustiapenarekin batera.

Philippe Bacardatz jaunak azalpenak eskatu ditu ustiapen arriskuak delegaziodunari eskualdatzeaz eta ustiatzaileen hautua eginen duen batzordearen osaketaz.

Auzapezak baieztatu du ustiapen arriskua delegaziodunaren gain izanen dela eta ustiatzailearen hautua PZD prozedura arrunt batez eginen dela, horretarako eskumena duen batzordeak hautagaitzak aztertu-eta.

Hiriart-Urruty andereak galdetu du zergatik te-saloia Laranjategian izanen den eta ez Zalditegietan.

Auzapezak erantzun dio Zalditegia nagusiki museoko ekintzetara bideratuak dela, eta museoaren jarraikortasunean antolatua izanen dela. Zehaztu du Zalditegian, noizean behin eremu batzuk antolatzen ahalko direla izari handiagoko ekitaldiak egiteko, hala nola ezkontzak. Ondorioz, te-saloia Laranjategian izanen da museoaren eskaintza osatzeko eta eraberritze lanekin koherentzian ustiatzeko.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak azpimarratu du Kanboko festetan Laranjategian oso bero zela.

Auzapezak erantzun dio bi lekuak ustiatuko direla. Zehaztu du Zalditegian eremu handiagoa behar duten ekitaldiak antolatuko direla. Laranjategia, berriz, leku txikiagoa baita, bere izariko ekitaldientzat izanen da.

Amaia Beyrie andereak galdetu du ea ZPD baldintza-agiriak kalitate irizpideak izanen dituenetz, bereziki mozkinak kalitatezkoak eta bertakoak izatea eta paisaian integratzea

Auzapezak erantzun dio baldintza-agiriak kalitate irizpideak jasoko dituela eta gainera hautagaiak horien betetzeko gaitasuna neurtuko duela, bai kalitateari dagokionez, baita finantzei dagokienez ere. Zehaztu du jarduera urte osokoa izanen ez denez, hautagaiak sendotasun nahikoa frogatu beharko duela te-saloiaren behar bezalako ustiapena bermatzeko.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdegin du ZPDrako hautagaiak jadanik identifikatu direnetz.

Auzapezak ihardetsi dio ez dela hautagairik atxiki, prozedura ez baita oraindik abiatu.

Peio Etxeleku jaunak delegaziodunaren ordainketa moduaz zehaztapenak galdegin ditu, segur izan nahi baitu 15 000 €ko zenbateko finkoa eta negozio bolumenaren araberako %18a osagarriak direla.

Auzapezak erantzun dio 15 000 €ei negozio bolumenaren gutxienez %18ko zati aldakorra gehitzen zaiola.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak zehaztu du zenbateko finkoa egokitzen ahalko dela kontsulta txostenean delegaziodunak eginen dituen inbertsioen arabera, eta hautagaiek zenbateko horretatik gorako proposamenak egin ditzaketela.

Auzapezak gehitu du zenbateko horiek aurreikuspenak besterik ez direla eta bezero kopurua behatzeko garai bat ezarriko dela. Berrikuspen klausula ezarriko da, behar izanez gero herriarentzako edo delegaziodunarentzako baldintzak egokitzeko.

Philippe Bacardatz jaunak harridura adierazi du diru-aurreikuspenei begira. Oroitarazi du lehenago edari-banatzaile automatiko bat kendu zela errentagarritasun ezagatik, eta zalantza egien du ZPDak etekin gehiago ateratzeko izanen lukeen gaitasunaz.

Auzapezak erantzun dio Laranjategiaren berrantolatzeko lanak inbertsio handia direla (500 000 €) eta produktu erakargarria sortzeko xedea dutela eta ondorioz edari-banatzaile automatiko soil batek baino errentagarritasun handiagoa izan beharko lukeela.

Philippe Bacardatz jaunak galdegin du ea deialdi publikoa egiten denetz "ikusteko" eta proiektuaren gauzatzeaz dudak adierazi ditu.

Auzapezak erantzun dio ZPDrako deialdia kontratu-esparru baten ukateko egiten dela, ustiapenaren abiatzetik gauzak argi izan daitezen eta arazorik gerta ez dadin azken momentuan. Errepikatu du baldintzak berrikusten ahalko direla lehen urtea pasatu-eta, eta baldintza horiek egokitzen ahalko direla bezero kopuruaren eta esperientziaren arabera. Berretsi du oraingo elementuak aurreikuspenak baizik ez direla.

005 - Petanka zelaiaren estaltzea: finantzazio planaren onespena.

ERABAKIA:

Auzapezak oroitarazi du Herriko Kontseiluak erabaki petanka zelaiaren estaltzeko lanak bidean direla eta 2025eko abendu erditsutan bukatuko direla.

2025eko martxoaren 20an Herriko Kontseiluan aurkeztu ziren lan horientzako 2025eko DETR diru-laguntza eskatu zen. Baina, proiektua ez baita hautatua izan, berriz aurkeztuko da 2026ko DETRean. 2025eko DETRean aurkezteari esker lanak abiatu eta bukatu ahal izan dira. Alabaina, halako proiektuentzako DETRaren finantzazio baldintzak aldatu dira, Frantses estatuaren parte hartzea %40tik %25era murriztuz. Ondorioz, finantzazio plana berrikusi behar da diru-laguntzaren zenbatekoa egokitzeko.

Proiektu horrentzako DETRa eskatzeko finantzazio plana onetsi behar dugu Frantziako estatuari diru-laguntza eskatzeko.

Zenbatekoa honela banatzen da:

Gastuak		Sartzeak	
Lanak	98 500 €	DETR %25	25 425,75 €
CT eta SPS misioak	3 203 €	Auto-finantzazioa %75	76 277,25 €
OROTARA ZK	101 703 €	OROTARA ZK	101 703 €

Herriko Kontseiluari galdegin dio gaineko finantzazio-plana onartzea eta proiektuari dagokion dirua esleitzea. Auzapezak diru-laguntzak eskatuko ditu 2020ko ekainaren 11ko Herriko Kontseiluak eman zion delegazioaren baitan, gaineko taulan azaldu bezala.

Herriko Kontseiluak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU gorago zehaztu den finantzazio plana.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari gai honi buruzko dokumentu oro izenpetzeko, diru-laguntzak eskatzeko, 2020ko ekainaren 11ko Herriko Kontseiluak eman zion delegazioaren arabera, eta lehengo taulan agertzen bezala.

HITZ HARTZEAK:

Argitxu Hiriart-Urruty andereak Auzapezari galdetu dio petanka elkarteak zenbat kide dituen.

Auzapezak erantzun du elkartearen biltzar batean izan dela, eta bere iduriko berrogeita hamar bat kide dituela.

Peio Etxeleku jaunak zehaztu du elkarteak 60 kide inguru dituela eta horiei gehitu behar zaizkiela kuristak.

Didier Irastorza jaunak elementu horiek berretsi ditu eta kuristen parte hartzea azpimarratu du, bereziki lehiaketak antolatzen direnean.

Auzapezak zehaztu du elkartearen azken biltzarrean berrogeita hamar bat pertsona bazegoela eta haren funtzionamendua goraipatu dutela. Gehitu du kanpoko kideak eta kuristak kontuan hartuz pertsona kopurua handiago izan daitekeela. Elementu horiek egin den inbertsioaren aldekoak dira, bereziki estali beharreko zelaiak zenbat jendek erabiltzen dituen ikusirik.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du petanka zelairako sarbideaz, ea kanboarrei irekia den, elkarteko kideez aparte.

Didier Irastorza jaunak ihardetsi dio elkarteko kideek dutela lekuaren erabiltzeko lehentasuna. Zehaztu du 14 pista badirela eta jendeak libreki erabil ditzakeela lekua irekia denean eta libre baldin badaude, inolako hertsapenik gabe.

006 - THP: 2. aldaketa.

ERABAKIA:

Magis Jaunak, hirigintza auzapez ordea, Herriko Kontseiluari oroitarazi dio Kanboko Tokiko Hirigintza Plana 2019ko otsailaren 2an onetsi zela, 2020ko irailaren 26an moldaketa sinplifikatua izan zuela, eta 2023ko irailaren 30eko eta 2024ko abenduaren 7ko moldaketak ere izan dituela.
Euskal Hirigune Elkargoko Lehendakariaren 2024ko abenduaren 18ko ordenantzaz, zeina 2025eko martxoaren 19ko ordenantzaz moldatu baitzen, THPren 2. aldaketa prozedura abiatu zen Frantziako Hirigintza kodeko L. 153-45 artikuluko xedapenak aintzat hartuz.

I. Kanboko THPren 2. aldaketa-prozeduraren zioa:

Kanboko Tokiko Hirigintza Planaren 2. aldaketa-proiektuaren xedea da arauzko zenbait bilakaera aintzat hartzea Frantziako Hirigintza Kodeko L. 153-41 artikuluaren arabera, honakoak direlarik bilakaera nagusiak:

- Beaulieu sektoreko eremutzea UEb sailkapenetik UBa sailkapenera iragaitea etxebizitza proiektu bat gauzatu ahal izateko;
- hiri-erdiko sektore zati bat bilakaraztea: UCtik UEra, UCtik UCt-ra eta UEtik UBra;
- Eremutze eta grafiko akats materialak zuzentzea;
- Bi lur sailen eremutzea eguneratzea, 2022ko uztailaren 12an Paueko Administrazio Epaitegiak THP partzialki indargetu ondoren;
- U eremuetan, idatzizko arautegiko zenbait xedapen aldatzea Eremu Berde Babestuetako eraikigarritasunari buruz.
- UCt sektoreko eraikuntzen gehieneko lurreko azalerari buruzko 9. artikulua aldatzea;

- Hiri eremu guzietan 3. artikulua aldatzea, baldintza batzuetan sarbide desberdina ahalbidetzeko lurren banaketak egiten direnean;
- 1 AU eremuko 2. artikuluan dentsitateak kendu, baina OAP eremuan txertatu;
- OAP bateko gehieneko etxebizitza-dentsitatea aldatzea (Antxuberroa);
- OAP guzietarako ematen den alokairuzko etxebizitza sozialen gutxieneko atalasea deuseztea (berez aplikatuko den araudian agertuko baita) eta erredakzioa zehaztea;
- Egitura handietako aparkaleku eta ekipamenduei buruzko araudiko xedapen orokorrak aldatzea (10 eta 7 artikuluak);
- Idatzizko arautegiaren akats materialak zuzentzea;
- UB eta UE eremuetako 2. artikuluan aipatzen diren bideak zehaztea;
- Kokapen erreserbatuak aldatzea, sortzea eta/edo ezabatzea;
- Oihaneko sute arriskua duten oihan-eremuen eta herrien sailkapenari buruzko 2025eko uztailaren 17ko 64-2025-07-17-00013 ordenantza eranskinean ezarri, zeinak definitzen baititu Landaretza Mozteko Legezko Beharmenduak eta LMLB mapa ere gehitzea.

II. Proiektuak ingurumenean duen eragina eta Ingurumen Agintearen (MRAe) iritzia:

→ Kanboko THPren 2. moldaketan aipagai direnak espazioan mugatutako bilakaerak dira, sektore zehatzetan eginak (OAP, kokapen erreserbatuak, hiri-eremuak), eta araudian eta OAPetan egin aldaketak puntu batzuetan (gizarte mistotasuna, zoruen okupatzea, sarbideak, lurreko azalera, aparkatzea, eremu berde babestuak).
Kokapen zehatza duten bilakaera gehienak ez dira ekologia edo ondare eremu sentikorretan, ez eta baliabide edo arrisku bereziko eremuetan. Gainera, OAPei eta araudiari egin aldaketek ez dituzte bioaniztasun, ondare, paisaia, arrisku edo baliabide jokagaiak dituzten eremuak hunkitzen. Orokorki, moldaketa horiek ez dituzte bioaniztasunaren edo baliabide naturalen gaineko presioak areagotzen. Aldaketa hauek ez dute lurraldearen eta pertsonen zaurgarritasuna handitzen traba eta arriskuen aitzinean. Aldaketa hauek ez dakarte laborantza, natura edo oihan eremuen kontsumo berririk.

Kanboko THPn egin behar diren aldaketak kontuan izanik, herriko hirigintza dokumentuaren 2. aldaketak ez du ingurumena eta giza osasuna kaltetu dezaketen eraginik. Ondorioz, Kanboko THPren moldatzeak ez du behartzen ingurumen ebaluaziorik egitea.

Frantziako ingurumen eta hirigintza kodeetako xedapenak jarraikiz, Euskal Hirigune Elkargoak Eskualdeko Ingurumen Aginte Misioarengana (MRAe) jo du.

→ Ingurumen aginteak 2025eko maiatzaren 20an 2025ACNA51 zenbakia duen aldeko iritzia eman du. Bere ondorioetan adierazi du Kanboko THPren moldaketak ez duela ingurumen ebaluaziorik behar. Elkargoko Batzorde Nagusiak 2025eko ekainaren 21 erabakia berretsi zuen.

III. Pertsona Publiko Kideek (PPK) THPren 2. moldaketa proiektuari buruz eman iritziak:

2025eko apirilaren 1etik goiti, Ingurumen Aginteari (MRAe) jakinarazi zitzaion txosten hura gero Pertsona Publiko Kideei jakinarazi zitzaien, hots: Pirinio Atlantikoetako Prefeta, Suprefeta eta DDTMeko Zuzendaria, Eskualde Kontseiluko Presidentea, Departamenduko kontseilua, Ipar Euskal Herria eta Seignanx-eko LKEko Sindikatu Mistoa, Ipar Euskal Herria Aturriko Mugikortasunen Sindikatua, Euskal Hirigune Elkargoa (THP arloan duen eskumena dela-eta), Merkataritza eta Industria Ganbera, Lanbide eta Artisautza Ganbera, Laborantza Ganbera, INAO, SNCF Réseaux eta Kanboko Auzapeza.

Orotara bost pertsona publiko kidek eman dute THPren 2. aldaketari buruzko iritzia:
- 2025eko maiatzaren 20 Eskualdeko Ingurumen Aginte Misioak (MRAe) aldeko iritzi bat eman zuen, ohar batekin. Oroitarazten zuen herrian etxebizitza beharraren emendatzea justifikatzea edo natura, laborantza edo oihan eremuetan urbanizatu beharreko azaleren beharra murriztea.

- 2025eko maiatzaren 13an, Ipar Euskal Herria Aturriko Mugikortasunen Sindikatuak bere iritziari oharrak gehitu zizkion. Batetik, Antxuberroa sektorean hiri-eremuak dentsifikatzeko interesa adierazi du, zeren Mugikortasun Planaren espirituan etxebizitzak garatu behar baitira garraio publikoak pasatzen diren lekuetan, eta bestetik, Beaulieu lekuarentzat edukiera ttipitzea, bereziki bisitarientzako aparkatzeko lekuei dagokienez, jendea bertara beste garraio moduen bidez etor dadin (bizikletaz, oinez, edo bertatik pasatzen diren bi autobus lineekin). Hiru helmuga bateratzea ere proposatu du (etxebizitzak, saltokiak eta formakuntza eraikina).
- 2025eko maiatzaren 22an, Ipar Euskal Herriko eta Seignanx -eko Lurralde Koherentzia Eskemaren Sindikatu Mistoko Bulegoak aldeko iritzia eman zuen, 2 erreserba eta 2 gomendiorekin.
  - Etxebizitza lagunduen ehunekoa emendatzea: Frantziako SRU legea bete behar duten herrientzat, programatutako etxebizitza ekoizpenaren gutxienez %60k etxebizitza lagunduak izan behar dira.
  - Gutxieneko dentsitateak emendatzea: LKEn zehazten diren gutxieneko dentsitateak proposatzea.
  - Beaulieu lekuan OAP bat sortzea gomendatzen da, eginen diren gogoetak egiazki integratuak izan daitezen eta herriak dituen helburuak iraunkorrak izan daitezen.
  - Nahi du herriak egiazta dezala kaltebera gisa identifikatu diren eremu eraikigabeak eta hauek klima aldaketaren kontrako borrokan duten eragina ez direla arriskuan izanen eremu berdeetan araudi aldaketak mantentzen badira. Herriari ere eskatzen dio trama urdin eta berdean parte hartzen ez duten lur-sailetako eremu berde babestuen perimetroa berrikustea, gerta litezkeen akats materialengandik babesteko.
- 2025eko apirilaren 28an, Euskal Elkargoaren aldeko iritzia erreserbarik gabe (THPan duen eskumenaren baitan),
- 2025eko maiatzaren 7an, Laborantza Ganberaren aldeko iritzia bi oharrekin:
  - Laborantza-eremu gisa erreserbatutako 103. lekuari dagokionez: lekua ustiatzen duen laborariarekin onetsi suteen kontrako ur-poltsaren kokapena, segur izateko ez duela lur-sailaren erabileran trabarik eraginen.
  - Kontrako iritzia ER 84C kokapen erreserbatua mantentzeko. BO 46 lur-sailean mantentzea ez da justifikatua. Badirudi jarduera eremu baten egiteko proiektu zahar bati zegokiola. Ondorioz, laborantzarako BO 46 lur-sailaren erdian kokatzeak ez du zentzurik.

IV. Inkesta publikoaren gauzatzea, ondorio argudiatuak eta inkesta-komisarioaren iritzia:

2025eko ekainaren 6ko ordenantza batekin, Euskal Hirigune Elkargoko Lehendakariak Kanboko THPren 2. moldaketarako proiektuari buruzko inkesta publikoaren abiatzea eta haren baldintzak agindu zituen.

Inkesta publikoa Kanboko herriko etxean eraman da 31 egunez, ekainaren 30etik uztailaren 30era, biak barne, Michel CAZAUBON Inkesta-komisarioaren agintepean, zeina Paueko Administrazio Epaitegiko Presidenteak izendatu baitzuen.

Inkesta osoan zehar,
- jendeak inkesta publikoaren txostena kontsultatu ahal izan du. Txostena paperezko bertsioa zuen (Kanboko Herriko Etxean ikusgai), baita bertsio digitala (Euskal Hirigune Elkargoaren webgunean ikusgai), eta honela osatua zen:
  - Kanboko THPren 2. aldaketa txostena, Ingurumen Aginteari (MRAe) eta Pertsona Publiko Kideei azterketarako aurkeztu zitzaien bezala (ikus aurreragoko aurkezpen laburtua);
  - Inkesta publikoko txostena zeinean aurkitzen baitira, besteak beste: inkestaren eta THPren 2. moldaketa proiektua aurkezten dituen oharra; inkesta publikoak prozeduran duen kokapena; prozedura abiatzeko ordenantza; inkesta publikoa agintzen duen ordenantza; inkesta publikoaren abisua; pertsona publiko kide guzien iritziak; Ingurumen Agintearen (MRAe) iritzia; inkesta publikoei eta THPak moldatzeko prozedurei buruzko legedi eta araudiak; eranskinak;
  - inkestaren paperezko erregistroa eta erregistro elektronikoa;
- jendeak bere oharrak Kanboko Herriko Etxean zen paperezko erregistroan idatzi ahal izan ditu; posta bidez ere inkesta-komisarioari helarazi ahal izan dizkio edo erregistro digital babestuan edo posta elektronikoz erregistro digitalean ematen zen helbidera;

- gainera, inkesta-txostenerako eta erregistro digitalerako sarbidea urririk bermatzeko, Kanboko Herriko Etxean ordenagailu bat ezarri da eskura;

Inkesta burutu-eta, Inkesta-Komisarioaren 2025eko agorrilaren 21eko inkesta-txostenak honakoak adierazten ditu:

- Inkesta publikoa 31 egunez jarraian eraman da inongo arazo edo gabeziarik gabe. Indarrean diren araudiak finkatu argitalpen neurriak bete dira. Gainera, jendeak inkestaren berri izan du herriko panel elektroniken bidez eta KANBOko THPren 2. moldaketa horrek eragin bereziak zituen auzo eta lekuetan Inkesta-txostenerako sarbideak, izan euskarri materialean (papera) nola euskarri digitalean, ez du kontsulta traba zezakeen zailtasunik erakutsi. Erregistro materialean eta digitalean egin diren ohar kopurua urria izanik ere, inkesta-txostenaren kontsulta kopuru handiak erakusten du KANBOko THPren 2. moldaketak interes nabarmena izan duela. Jendea hurbildu da inkesta-komisarioak Herriko Kontseiluaren bilkura gelan (leku ezaguna eta irisgarria) egin dituen permanentzietara. Ondorioz, inkesta publikoaren prozedura behar bezala eraman da.
- Beaulieu guneko araudia aldatzearekin Basaburu auzoan zentralitate berri bat sortzeko lur funtsak baliatzen ahalko dira, kontuan izanik erdigune historikotik eta hiriguneko zerbitzuetatik urrundua den gune horretara heltzen direla garraio publikoak. Proiektu horren hirigintza helburuek, Kanboko Tokiko hirigintza Planaren 2. moldaketaren arau bilakaerarekin (Beaulieu gunean eta Hayderrian, Antoxuberoan eta Itsasurekin mugan den hegoaldeko sartzean aurreikusi den dentsitatea eta etxebizitzen banaketa) Kanbo herriari ahalbidetuko diezaiokete alokairuzko etxebizitza lagunduen eskasia betetzea, Lurralde Koherentzia Eskemaren Sindikatu Mistoak egin oharrei erantzunez herria engaiatu baita hiru sektoreetan etxebizitza lagunduen tasa %60ra eramatera.
- Suhiltzaileek izan ditzaketen trabak altxatzeko, diozesako langileen etxebizitza baldintzak egokitzeko edo erdigunean hotel-jatetxe baten ezartzeko aurkeztu diren arauzko bilakaerek justifikatuak dirudite, zeren ez baitute gaur egungo ehunean aldaketa handirik eraginen eta zoruen okupatzeko araudiaren zentzuzko egokitzapen bati ihardesten diotelako.
- THPren 2. moldaketak proposatzen dituen akats materialen zuzenketek, hirigintza araudia arintzeko eta haren dokumentu grafikoko elementu trabagarriak kentzeko, araua ulergarriagoa bilakatzen dute.
- Kanboko tokiko hirigintza planaren 2. moldaketan hunkituak diren kokapen erreserbatuetan nahi diren bilakaerak, zeinak motibatuak baitira leku horien eskuratzearekin, bertan egin asmo ziren proiektuak bertan behera uzteagatik edo behar berriei egokitzeagatik, justifikatuak dira eta ez dute herriko tokiko hirigintza planaren ekonomia orokorra kolokan ezartzen.
- Kanboko THPren 2. moldaketa honek zenbait xedapen malgutzeko dituen erredakzio aldaketek, zoruen zuzenbidearen aplikazioaren irakaspen praktikoei erantzuten diete; araua ulergarriago egiten dute eta hirigintza baimenak eskatzerakoan herritarren eta administrazioaren arteko harremanak erraztuko lituzkete.
- Kanboko THPren 2. moldaketan bi lur-sail A sailkatu izanak aitzineko THPren xedapen bat berrezartzen du eta justifikatua da zeren 2022ko uztailaren 12ko epai bati erantzuten diolako. Hala ere, epai horrek AS 36 lur-sailari buruz eman deuseztapen erabakiak lehenbailehen arauzko erantzun bat behar du, nahiz eta herriaren tokiko hirigintza planaren honako 2. moldaketak ezin duen erantzun hori eman.
- Jendeak eraikin zaharrei, natura edo laborantza guneetan eraikigarritasuna emateko eskaerak Kanboko THPren 2. moldaketa honen esparrutik kanpo daude eta ondorioz prozedura honek ezin die erantzunik ekarri.
- Landaretza mozteko legezko beharmendua indarrean den lekuen mugak zehazteko, Kanboko THPren eranskinen eguneratzea herri bereko THPren 2. moldaketaren prozeduratik deslotzen da.

Honela, 2025eko agorrilaren 21ean, Inkesta-Komisarioak ondorio argudiatuak aurkeztu ditu eta iritzia eman du Kanboko THPren 2. moldaketa proiektuari buruz:

Aldeko iritzia, baldin eta 1AU eremuko araudiaren 2. artikulua aldatzen bada, antolamendu eta programazio norabideak dituzten "Hayderria", "Antxuberroa" eta "Itsasurekiko hego muga" sektoreetan etxebizitza lagunduak %60ra emendatzeko xedapenak txertatzeko.

Bestalde, Inkesta-Komisarioak 3 gomendio egin ditu: lehena AS 36 lur-sailari aplikatuko zaizkion xedapen berrien idazteko engaiamenduari buruz, bigarrena Frantziako Hirigintza kodeko R. 151-27 eta R151-28 artikuluei erreferentzia eginez xedapen orokorren 10. artikulua moldatzeko, eta hirugarrena moldaketa proiektutik deslotu daitezkeen eranskinei buruzkoa.

V. Inkesta publikoaren ondotik proiektuari egin beharreko aldaketen proposamena:

Kanboko Tokiko Hirigintza Planaren 2. moldaketa onetsi baino lehen komeni da honakoen egitea:

1- MRAek herrian etxebizitza beharren emendatzea justifikatzeko egin gomendioari erantzutea: justifikazioak aurkezpen notizan ematen dira eta THPren aurkezpen txostenean gogoratzen diren Tokiko Bizitegi Planaren asmoetan. Halere, aurkezpen notiza argituko dugu.

2- LKE egin 2 erreserben altxatzea:
Egitasmoduna eta Kanbo herria ados dira OAPetan etxebizitza lagunduen proportzioa %60ra emendatzeko.
Egitasmoduna eta Kanbo herria ados dira OAPetan etxebizitza dentsitatea hektareako 45 etxebizitzara emendatzeko.

3- Laborantza Ganberak 84C leku erreserbatuari buruz egin oharrari erantzutea: ER hori kenduko da ez baitu gehiago justifikaziorik/ Bestalde, sortu den leku kokapen erreserbatua ez da 103 zenbakiduna (THPn jadanik existitzen baita) baina 109.a

4- jendearen zenbait oharrei erantzutea:
- San Mixel Garikoitz kolegioaren izena zuzentzea.
- herrian aurreikusten diren etxebizitza ekoizpenei buruzko aurkezpen notiza argitzea.
- THPn UA, UB, UC, 1AU eremuetako 11. artikulua aldatu eta UE6ko artikulua ere.

5- Inkesta-Komisarioaren erreserbak altxatzea eta gomendio bati erantzutea:
- THPren 2. moldaketa proiektuan pertsona publiko arduradunak erreserba altxatuko du "Hayderria", "Antxuberroa" eta "Itsasurekiko hego muga" OAPko hiru sektoreetan etxebizitza lagunduen proportzioa %60ra emendatuz.
- Xedapen orokorren araudiko 10. artikulua aldatuko da Frantziako Hirigintza kodeko R.151-27 eta R.151-28 artikuluei erreferentzia eginez.

Kanboko THPren 2. moldaketan ez da besterik aldatu behar, kontuan izanik herriak inkesta-komisarioari helarazi dion Memorian erantzunak ematen dizkiola baita inkesta publikoaren txosteneko beste iritziei ere.

Bestalde, 1. eranskineko taulak MRAe, PPK eta biztanleriaren oharren, egitasmodunaren (Euskal Elkargoa) erantzunen eta THPren moldaketa txostenaren sintesia egiten du.

VI. Ondorioz, txosten moldatua bozkarako prest da:

Kanboko THPren 2. moldaketa txostena bozkatua izateko prest da, pertsona publiko kideen iritziak, inkesta publikoan eman oharrak, inkesta-komisarioaren ondorioak kontuan harturik.

Herriko Kontseiluak, Magis jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, bozen gehiengoz:

ALDEKO IRITZIA ematen dio THPren 2. moldaketa proiektuari.

ONETSI DU THPren 2. moldaketa proiektuaren prozedura.

Kontra bozkatu dute: Peio Etxeleku (ahalordearekin), Jean-François Lacosta, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy.

HITZ HARTZEAK:

Argitxu Hiriart-Urruty andereak, inkesta-komisarioarekin elkartu eta gero egin dituen oharrak aipatu ditu, azpimarratuz txostenean akats handiak bazirela etxebizitza lagunduen kopuruari buruz. Zehaztu du txostenean 198 etxebizitza aipatzen direla baina egiazki 75 direla, zehazturik Arditeyako 19 etxebizitza eta zahar-etxeetako zenbait logela etxebizitza lagundu bezala kontuan hartu zirela. Azpimarratu du ondorioz azken 6 urteetan beherakada nabarmena izan dela.
Gero, herriko kontseiluari galdera egin dio bidean diren edo aurreikusi diren etxebizitza berri proiektuei buruzko taulan "Itsasurekiko hego mugako OAP" sektorean aipatzen diren 171 etxebizitzak zer diren.

Magis jaunak erantzun dio ez dela gai sektore horrentzako ematen den etxebizitza kopurua zehazteko edo azaltzeko.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak bere desadostasuna azpimarratu du, eta bere ezinegona ere egiazkoak ez diren zenbakien aurrean, aldea nabarmena eta problematikoa delako.

Argitxu Hiriart-Urruty anderea kezka azaldu du etxebizitza lagunduei buruzko zenbakiekin, bere ustez okerrak direlako. Zehaztu du, Euskal Elkargoko hautetsiek larunbatean bozkatu behar dutela zenbaki hauek kontuan hartuz, hots 744 etxebizitza berri Kanbon zeintzuetatik 393 lagunduak, baina salatu du zenbaki horiek okerrak direla.

Jean-Noël Magis jaunak zehaztu du zenbakiak AU eremuetako proiektu guztienak direla eta gaur egungo THPren ebaluazio baten emaitza direla, zeinak eperako proiekzioa ematen baitu.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak "Itsasurekiko hego mugako OAP" proiektuari buruzko xehetasunak eskatu ditu, non 68 etxebizitza libre eta 103 lagundu aurreikusten baitira.

Jean-Noël Magis jaunak erantzun dio ez dela xehetasunik emateko gai eta iradoki du balitekeela aurkeztu den txostenean akatsa izatea.
Zehaztu du ez duela txosten osoa eta ondorioz ezin dituela zenbaki batzuk esplikatu. Adierazi du dokumentuak 171 etxebizitza aipatzen dituela hegoaldeko sarreran, baina Marieniako proiektuak 96 etxebizitza dituela.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak dio ez dela posible arrats horretan bozkatzea zeren etxebizitza kopuruak elementu inportantea baitira, eta oroitarazi du datu horiek inkesta-komisarioaren txostenekoak direla.

Jean-Paul Alaman jaunak "Itsasurekiko hego mugako" OAPari buruzko azalpena proposatu du. Marieniako OAPak Bouygues enpresaren Marienia proiektuaren azalera baino handiagoa dela, zeinak 96 etxebizitza dituen.

Jean-Noël Magis jaunak adierazi du OAPa gaur egungo THPn sartua dela eta baiki Marieniaren sektorea barne biltzen duela. Iradoki du 171 etxebizitzen zenbakia ondoko beste operazio bat ere har dezakeela, non 40 etxebizitza egin baitziren orain 3 urte.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak bozka atzeratzea eskatu du zenbaki zuzenak eskuratu artean eta eztabaidagai diren elementu zehatzekin erabakitzeko.

Auzapezak adierazi du aipatu den kopurua ez dela ofizialki komunikatu dena. Proposatu du urraspide eraikitzaile bat hartzea moldaketa bozkatuz baina zenbaki horien egiaztapenaren erreserba batekin. Zehaztu du kopurua gora okertua balitz diru ondorioak izanen dituela, bereziki Marienia sektorean aurreikusten diren etxebizitza lagunduekin loturan, eta proiektu horren gauzatzea konplexua dela. Egoera horrek ondorio ezkorrak izan litzake herriaren zerga bilketan, 100 000 euro ingurukoa.
Azpimarratu du ez duela herriak proiektua gauzatzeko duen ahalmena dudan ematen, jakinez gaur gaurkoz deus ez dela gauzatu. Ondorioz, uste du gai horrek ez duela justifikatzen aurkeztu den moldaketaren kontra bozkatzea.

Jean-Noël Magis jaunak zehaztu du aipatu den kopuruak ez duela zuzeneko eraginik. Adierazi du, etxebizitza lagunduen hiru urteko programari begira, eta egiteke dauden ekintzak kontuan hartuz, herria egunean dela eta finkatu ziren helburuak bete dituela.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak zalantzak ditu baieztapen horretaz.

Jean-Noël Magis jaunak azaldu du hiru urteko programak ekintza aurkeztuak eta programatuak kontuan hartzen dituela. Hortaz, kalkulu horretan sartzen dira Usimendia eta Marienia proiektuak, eta ondorioz helburuak bete dira.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak helburuak bete izanaren baieztapena gaitzetsi du, zeren Marieniako proiektua ezin baita gauzatutzat hartu lanak geldituak baitira.

Jean-Noël Magis jaunak erantzun du etxebizitza lagunduen hiru urteko programen baitan etxebizitzen zenbatzeko metodoak txosten aurkeztuak eta programatuak dituela kontuan hartzen, zein izan ere lanen aitzinamendua. Hori dela-eta, adierazi du hiru urteko programaren ikuspegitik herria egunean dela.

Jean-Paul Alaman jaunak hiru urteko programak zein garai hartzen duen zehaztea eskatu du.

Jean-Noël Magis jaunak erantzun dio uneko hiru urteko programak 2023-2026 garaia hartzen duela. Zehaztu du garai horren ondotik, berrazterketa klausula batek baimentzen duela bilan berri baten egitea. Lanen aitzinamenduaren arabera, bereziki proiektu batzuk bidean gelditzen badira, etxebizitza lagunduen helburu berriak finka daitezke. Gehitu du eskasia egoeran herriak isun azkartua ukan dezakeela. Bukatzeko erran du uneko egoeran eta 2023-2026 hiru urteko programaren ikuspegitik herria egunean dela.

Auzapezak zehaztu du gauzatu edo programatu diren lanen ikuspegitik herriaren egoerak arauek finkatua betetzen duela.

Jean-Paul Alaman jaunak galdetu du ea herriak ihes egingo ote dion iazko isunari.
Jean-Noël Magis jaunak erantzun dio herriak isuna ordainduko duela etxebizitza lagunduetan duen eskasiarengatik.

Jean-Paul Alaman jaunak ohartarazi du, nahiz eta herria "paperean" egunean izan, isunak ordaindu behar dituela.

Jean-Noël Magis jaunak erantzun du herriak urteroko etxebizitza lagunduen ekoizpen engaiamenduak betetzen dituela (60 etxebizitza aurten) eta ez dutela isunik ordaintzen

helburu horiengatik. Baina, eskasia orokorra dagoenez horrek isunak ordaintzera behartzen du. Programatutako ekintza batzuk ez badira gauzatzen, eskasia areagotzen da, eta herria eskasia egoeran dagoenean isunak ordaindu behar ditu 1 eta 5 arteko koefizienteekin. Azpimarratu du isun gehikariek zenbateko handiak eman ditzaketela, adibidetzat hartuz Biarritz eta Hazparne. Bukatzeko erran du lehentasuna dela ekintza berriek araudiek eta Tokiko Bizitegi Planak finkatu etxebizitza lagunduen ekoizpen helburuak betetzea.

Eliane Aizpuru andereak zehaztu du etxebizitza lagunduen eskasiagatiko isunaren kalkuluan eskas diren etxebizitzak hartzen direla kontuan eta tarifa bakar batez biderkatzen direla. Iaz, 475 etxebizitza eskas zirelarik eta 216, 11€ bakoitzeko, orotara isuna 101 787 €koa izan zen. Aurten, 500 etxebizitza eskas izanik, eta bakoitzari 235,71 €ko prezioa aplikatuz, isuna 117 855 €koa izanen da, hots %16ko igoera iazkoari alderatuz.

Nathalie Aiçaguerre anderea berrietara jin da Haiderria OAPari buruz, ortzi muga 2026an delako.

Jean-Noël Magis jaunak zehaztu du Haiderria proiektua, Hazparneko bidean dena, egitasmodunarekiko topaketa baten beha dela. Gaur aldatuko den THPrekin, proiektua hektarea bakoitzeko 30 etxebizitzatik 45era pasa liteke. Egitasmodunari eskatu zaio programa berrikustea lur funtsak ahal bezainbat optimizatzeko. Proiektuaren aitzin-aurkezpen bat aurreikusten dugu heldu den urte hasieran. Hirigintza batzordean eztabaidatuko dugu eta gero Herriko Kontseiluan. Programak 120 bat etxebizitza aurreikusten ditu, horietatik %60 lagunduak, denak bizitegi kolektiboetan.

Nathalie Aiçaguerre andereak biribilgunearen lanak zertan diren galdetu du.

Jean-Noël Magis jaunak erantzun dio lanak hastekotan direla. Proiektua obren batzordean aztertu da, lehen bilkura egin dugu Zerbitzu Teknikoetako Zuzendaria hor izanik.

Auzapezak auzokideekiko bilkuraren data eskatu du.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak adierazi du bilkura abenduaren 11an programatua dela, arratseko seiak eta erdietan, eta Departameduko Kontseiluak baieztatu duela. Zehaztu du obraren prestaketa fasea 15 egun lehenago hasi zela. Bi hilabeteko prestaketa eta hiruko lanak aurreikusirik, biribilgunearen lanek martxo bukaeran edo apiril hasieran bukatuak beharko lukete.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak ohartarazi du, taularen arabera Haiderria proiektuak 32 etxebizitza libre zituela eta 18 lagundu, hots orotara 80 etxebizitza.

Jean-Noël Magis jaunak azaldu du kopuru horiek gaurko THPn oinarritzen zirela eta gaurko moldaketa onartuko balitz kopurua 120ra igoko litzatekeela. Zehaztu du baita ere, hegoko sartzeari dagokionez, inkesta-komisarioak Assantzaborda IIko ekintza kontuan hartu duela.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak harridura eta desadostasuna adierazi ditu Etxehandiako xede aldaketekin eta eremutzearekin, kolegioaren ondo-ondoan apezentzako etxebizitzak sortu nahi direlako. Adierazi du aldaketa horiek bortitzak zaizkiola. Kezka ere adierazi nahi izan du Kanboko Herriko Etxearen, parrokiako agintaritzaren eta ondasunen kudeatzeko elkartearen (OGEC) arteko iragazkortasunagatik, eta kudeaketa elkarteko kide batzuk herriko kontseilukideak izatea trabagarria zaiola.

Auzapezak adierazi du ez duela bat egiten erratearekin Herriko Kontseilukide batzuen engaiamenduen eta beren jarduera pribatu edo elkarteetakoen arteko iragazkortasuna dagoela. Oroitarazi du hartu diren erabakiak, bereziki Etxehandiako eremutzearen moldaketa eta etxebizitzak apezek erabiltzea, interesdunen eta haien erabakiguneen hautua besterik ez dela. Bukatzeko erran du hitz hartzearen formulazioa lekuz kanpokoa dela.

Argitxu Hiriart-Urruty anderearen ustez Etxehandiako erabakia bortitza egien zaio. Gero apezetxearen gaira itzuli da, erranez ez zuela aitzineko solasaldien oroitzapenik.

Auzapezak oroitarazi du apezetxearen txostena usu aipatu dela. Herriak eraberritu izan balu horrek gastu handiak eraginen zituen, lekua oso zaharkitua baita, eta buruan alokatzailearentzako sari handiegia eraginen zuen.
Azaldu du diozesak ez duela lanik egiteko xederik, ez eta alokairu garestirik ordaintzeko. Horregatik, apezak Etxehandian aterpetu nahi ditu. Kasu horretan, herriak apezetxea beste zerbaitetarako erabil lezake.

Nathalie Aïçaguerre andereak adierazi du ez zuela proiektu horren berri izan eta herriko kontseiluko saioetan ez zela sekula aipatu.

Auzapezak proposatu du aztertzea ez ote dagoen herriko kontseiluko aktetan gai horri buruzko aztarnarik.

Jean-Noël Magis jaunak zehaztu du Herriko Kontseilukideak elkarteetan engaiatzen direlarik horietan egiten dituztenak haien ardura pertsonalekoak direla eta ez dagoela horretaz eztabaidatzerik. Apezpikutza eta apezetxeari dagokienez, zehaztu du eraikina zaharkitua dela eta obra handiak egin beharko liratekeela. Haren aburuz, horregatik hautatu dute apezetxea Etxehandira lekualdatzea, zeina apezpikutzaren jabegoa baita, bertan lan onargarriagoak egiteko.

Amaia Beyrie andereak THPrekin zer ikustekorik ez duen galdera egin du. Galdetu du ea eskola pribatuko gurasoei beren iritzia galdetu ote zaien Etxehandiaren hautatzeaz.

Jean-Noël Magis janak adierazi du gaiarekin zer ikustekorik duten alde guziei informazioa helaraziko zaiela.

Amaia Beyrie andereak galdetu du informazio hori erabakia hartu eta gero helaraziko zaienez.

Jean-Noël Magis jaunak erantzun du, jabego pribatua izanik, OGEC-ek eta apezpikutzak dituztela egutegia eta erabakiak hartzen, baina dena den informazioa emanen dela.
Corinne Othatceguy andereak zehaztu du guraso elkarteek jadanik informazioa ukan dutela eta egoera ezagutzen dutela, bilkuretan aipatua izan baita.

Peio Etxeleku jaunak zenbait galdera egin ditu THPren moldaketari buruz, bereziki 32 eta 83 zenbakiko leku erreserbatuei buruz. Azpimarratu du lehenago aipatu bide izenak (Ussia, Harriondoa) ez datozela bat egiazko bideen izenekin (Oihanburuko bidea), eta horrek nahasmendua eragin dezakeela biztanleen artean eta haien ekiteko gaitasuna muga dezakeela.
Zehaztu du eremu erreserbatu horiek 10 metro zabaleko zerrenda osatzen dutela eta bertako biztanle guztien akordioa ukateko beharraz galdetu du, jakinez zenbait lur-sail pribatuak direla eta horrek inkesta publikoa indargabetu dezakeela. Galdetu du, baita ere, ea leku horretako biztanleei jakinarazpena igorri ote zaien gutun egiaztatu bidez.

Azkenik, ohartarazi du inkesta-komisarioak ez duela Mugikortasunen Sindikatuaren oharra kontuan izan, zeinaren arabera 10 metro gehiegi baita mugikortasun goxoentzako bide baten egiteko, eta ondorioz herriak Arnagarainoko eremu horiek bereganatzeko lukeen lehentasuna ez litzateke justifikatua.

Jean-Noël Magis jaunak baieztatu du 32 eta 83 leku erreserbatuen kasuan argitasun eskasa izan dela. Azaldu duenez, hastapeneko planoan, kokapen erreserbatu jarraiki batek Oihanburua eta Haideria bideak hartze zituen, eta horrek nahasmendua eragin zezakeela. Egoera argitzeko honakoak erabaki dira:

- *Haideria bidean soilik 32. kokapena atxikitzea 10 metroko zabalera batekin;*
- *departamenduko errepide zatiko eremu erreserbatua kentzea, nahasmendu iturri baitzen;*
- *kokapen erreserbatua soilik Oihanburuko bidean atxikitzea.*

Zehaztu du neurri horien helburua dela bi kokapen erreserbatu ukaitea.

Peio Etxeleku jaunak azpimarratu du inkesta publikoa baino lehen bideak ez zirela behar bezala izendatuak (Oihanburua izena ez zen agertzen). Azaldu du horregatik zenbait bertako biztanlek ezin izan diotela beren iritzia eman inkesta-komisarioari informazioa ez baitzuten, eta horrek prozeduran ahulezia bat sortzen duela.

Jean-Noël Magis jaunak zehaztu du 32 eta 83 kokapen erreserbatuen moldaketak ez duela beren xedea aldatzen, hots, kokapen erreserbatuak izaten segitzen dutela. Zenbakia eta izena besterik ez dira aldatu, kokapen berririk sortu gabe, eta biztanleentzako kalteak izateko aukera murrizten du.
Lur-funtsen eskuratzeei dagokienez, azaldu du lehentasuna dela adostasun batera heltzea eta azken aukera gisa desjabetzea, adostasunik ezin bada lortu. Azaldu du metodo hori beti eraginkorra izan dela eta elkarrizketa sistematikoak egiten direla biztanleekin, bereziki plataformen zabalerari buruz.
Aipagai diren kokapen erreserbatuei dagokienez, planoan agertzen diren 10 metroko zabalerak ez dira oraindik aldatu, nahiz eta proiektuak zehazterakoan doikuntzak egiten ahalko diren. Berretsi du kokapen erreserbatu horietan ez dutela desjabetzerik egin behar izan agintaldi hasieratik.

Peio Etxeleku jaunak adierazi du uste zuela, kokapen bat balioetsia izateko lehenago bertako biztanleen akordioa behar zela eta jakinarazpena bakoitzari igorri behar zitzaiela, baina bere ustez hori ez da egin.

Jean Noël Magis jaunak erantzun dio kokapen erreserbak interes orokorrarentzat egiten direla. Aitortu du zenbait bertako biztanle kaltetuak sentitzen ahal direla herriak terrenoa eskura dezakeelako, baina zehaztu du bere iduriko biztanle bakoitzari jakinarazpen indibiduala egitea ez duela Hirigintza Kodeak behartzen. Iradoki du pundu hori argitzea ikerketa bulegoarekin.

Peio Etxeleku jaunak erran du informazio iturriak zenbait artikulutan irakurri dituela eta Prefekturan eskuragarri den ministerioaren ohar batean, zeinak zehazten baitu kokapen erreserbatuentzat, jokoan diren terreno pribatuen xede aldatzea argitua izan behar dutela aitzinetik. Hori egiten ez bada, inkesta publikoa indargabetua izan daiteke. Azpimarratu du, kasu honetan, hastapenean ematen ziren bide izenak ez zirela zuzenak, eta horregatik zenbait bertako biztanlek ez dutela beren desadostasuna adierazi ahal izan .

Jean-Noël Magis jaunak erantzun du kokapen erreserbatu horiek aitzinetik existitzen zirela eta beren xedea ez dela aldatu. Zehaztu du kokapen erreserbatuen zabalerak eta beste zenbait ezarpen ez direla aldatu. Oroitarazi du kokapen erreserbatua egin daitekeela interes

orokorreko arrazoiengatik eta biztanleek hirigintza dokumentuen bilakaera segitu behar dutela, nahiz eta batzuek berantegi egiten duten.

Peio Etxeleku jaunak galdetu du berrestea Arnagarainoko zerrendaren zabalera 10 metrokoa dela.

Jean-Noël Magis jaunak berretsi du momentukotz zabalera 10 metrokoa dela eta ez dela aldatu. Zehaztu du zabalera hori gerora aldatzen ahalko dela, baina oraingoz horrela mantentzen dela.

Peio Etxeleku jaunak deitoratu du Mugikortasunen Sindikatuaren oharra, 10 metroko zabaleko zerrendari buruzkoa, ez baita kontuan hartu moldaketa honetan. Azpimarratu du egoera horrek etorkizuna kolokan ezartzen duela, besteak beste jadanik kaltetuak diren laborantza jarduera kolpa ditzakeelako.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak %60ko etxebizitza lagunduen betebeharraz galdetu du, LKEk agintzen duen bezala OAPetako proiektuentzat, besteak beste Marienia eta Usimendia.

Jean-Noël Magis jaunak erantzun du proiektu horiek balioetsi direla baimenak eman ziren garaian indarrean ziren araudien arabera. Zehaztu du baldintza horiek ez direla aldatuko baimen berri bat eskatzen ez den bitartean.

007 - SCI Akikam: Hipotekaren altxatzea.

ERABAKIA:

Magis Jaunak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio Herriak 50 m²ko AD 130 lur-saila eskuratzeko asmoa duela, orain zenbait urte SCI AKICAM sozietatearengandik eskuraturik Alexandre Camino Doktorearen etorbideko Iguzkian auzoko irteeraren ikusgarritasuna hobetzeko.
2013ko martxoaren 4ko Herriko Kontseiluaren erabaki batean, SCI AKICAM sozietatearengandiko eskuratzea urririk egin zen. Txostena notarioarenean egon zen.

Herriak eskuratzea bururaino eraman nahi izan du, baina agertu da lur-sailak hipoteka bat baduela eta hipoteka horren altxatzea egin behar dela. Hipotekaren altxatzeak 700 € balio du.

Kontuan izanik SCI AKICAM sozietateak lur-saila urririk utzi nahi duela,

Kontuan izanik baldintza horietan zaila dela hari galdegitea hipoteka altxatzeko gastuak ordaintzea,

Magis jaunak proposatu du lur-saila hipotekaren altxatzeko prezioan erostea, hots 700 €.

Herriko Kontseiluak, Magis jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU Hipotekaren altxatzea eta 50 m²ko AD 130 lur-saila SCI AKICAM sozietateari erostea 700 €an + 200 € erosketa-egintzarentzat.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari ekintza horren gauzatzeko behar diren izapide guzien egiteko eta dagokion agiri oro izenpetzeko.

008 - Jendarmeriaren karrika itsua: lur-sailak jabari publikoan txertatzea.

ERABAKIA:

Magis jaunak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio orain zenbait urte Herriak bideen antolamendu lanak egin zituela.

2012ko abenduaren 17ko Herriko Kontseiluaren erabakiz eta 2013ko urtarrilaren 21etik otsailaren 4ra iragan zen inkesta publikoaren ondotik, "Jendarmeriako karrika itsua" osatzen zuten lur-sailak jabari publikora igaro behar ziren.

Alabaina, oraindik Herriaren jabari pribatukoak dira.

Katastroko zerbitzuari galdegin behar zaio herriaren jabari publikora pasatzea, eta lur-sailen zenbakiak aldatu direnez, Herriko Kontseiluak erabakia hartu behar du.

Herriko Kontseiluak, Magis jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU Jendarmeriako karrika itsua osatzen duten lur-sailak jabari publikora pasatzea.

Lur-sailak	Azalera
AX 347	287 m²
AX 349	193 m²
AX 351	474 m²
AX 354	310 m²
OROTARA	**1 264 m²**

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari ekintza horren gauzatzeko behar diren izapide guzien egiteko eta dagokion agiri oro izenpetzeko.

HITZ HARTZEAK:

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du altxatu beharreko hipoteka anitz gelditzen denetz notarioarenean.

Auzapezak zehaztu du ondoriotasun afera batzuk direla, notarioarentzako etekin gutxikoak, eta horregatik beharbada egoten direla hainbeste denbora landuak izan gabe.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du ba ote dagoen biderik afera horien identifikatzeko. Auzapezak erantzun dio herriak notarioari eskatu diola afera horiek ahal bezain laster erregularizatzeko, baina notarioak duela erabakitzen noiz egin.

Philippe Bacardatz jaunak ohartarazi du saio bakoitzean agertzen direla horrelakoak.

Jean-Noël Magis jaunak azpimarratu du afera horiek progresiboki agertzen direla eta sistematikoki erregularizatzen direla.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak zehaztu du hogeita hamar bat afera daudela oraindik erregularizatzeko.

009 - A - Herriko apartamentuen alokairu sarien salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti.

ERABAKIA:
Aizpuru andereak proposaturik eta eztabaidaturik, Herriko Kontseiluak aho batez:

honela FINKATU DITU herriko apartamentuen alokairuak:

- San Josepe etxea (F3 txikia): 530 € hilabetean, 2026.01.01etik goiti
- San Josepe etxea (F3): 800 € hilabetean, 2026.09.01etik goiti
- Lehen mailako eskola publikoa: 671 € hilabetean, 2026.02.01etik goiti
- Apezetxea: 364 € urtean, 2026.01.01etik goiti
- Behereko plazako eskola: 59 € hilabetean, 2026.01.01etik goiti
- Denentzat zentroa 1: 637 € hilabetean, garajea: 51 € hilabetean, 2026.01.01etik goiti
- Denentzat zentroa 2: 534 € hilabetean, garajea: 51 € hilabetean, 2026.01.01etik goiti
- Poupel karrikako etxe juntatua 1: 835 € hilabetean 2026.09.01etik goiti
- Poupel karrikako etxe juntatua 2: 806 € hilabetean 2026.01.01etik goiti
- Turismo Bulegoa (1.estaia): 645 € hilabetean 2026.01.01etik goiti
- Turismo Bulegoa (2.estaia): 472 € hilabetean 2026.01.01etik goiti
- Laborde etxea (1. estaia): 492 € hilabetean 2026.01.01etik goiti
- Laborde etxea (2. estaia): 492 € hilabetean 2026.09.01etik goiti
- Hilerriko zaindariarenea: 217 € hilabetean 2026.01.01etik goiti
- Igerilekuko zaindariarenea: 255 € hilabetean 2026.01.01etik goiti

009 - B - Zerbitzu anitzeko zentroko bulegoak alokatzeko salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herriko Kontseiluak, aho batez, honela finkatu ditu 2026ko urtarrilaren 1etik goitiko zerbitzu guneko bulegoen alokairu sariak

- Mission Locale Avenir Jeunes: 750 € urtean
- FaLK: 980 € urtean
- EFMPB (Espace Famille Médiation Pays Basque): 320 € urtean
- Aldizkako eskaerak: 11 € orduko

009 - C - Leku eskubideen eta jabari publikoa okupatzeko salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti..

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herriko Kontseiluak, aho batez, honela finkatu ditu leku eskubideen eta jabari publikoa okupatzeko salneurriak:

Taxiak	90 € urtean
Ezker paretako aparkalekua	6 €/m²
Sorhainde plaza	18 €/m²
Herriko bestak	10 €/m² salbu braderia egunean
Karpa (ikuskizun bizidunak barne)	< 30 m² : 70 € egun batentzat + 10 € egun gehigarri bakoitzeko > 30 m² : 70 € egun batentzat + 2 € m² gehigarri bakoitzeko 30 m² tik goiti + 10 € egun gehigarri bakoitzeko
Salmahaia	Forfaita: 30 € eguneko
Jabari publikoaren okupatzea	
a) Terrazak - Jatetxeak - Edari saltzaileak	 79 € m²ko eta urteko 68 € m²ko eta urteko
b) Apalak, erakusmahaiak, karta postalak, merkealdiak, zintzilikagailuak (jantziak)	58 €/elementu/urte lehen biak, gehi 34 € elementu gehigarri bakoitzeko, orotara 4 elementutara mugatua metro luze gehigarri bakoitzeko: 38 €
c) Jaki hondagarrien erakusmahaiak (fruitu, barazki, lore…)	92 € urtean (m² 1 gehienez)
d) Iragarki panelak	

009 - D - Lanen egiteko jabari publikoa okupatzeko salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herriko Kontseiluak, aho batez, honela finkatu ditu lanen egiteko leku eskubideen eta jabari publikoa okupatzeko salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti:

Jabari publikoaren okupatzea etxe aldaketa egiteko	urririk
Garabia-kamioia, jasogailu-kamioiak edo bestelako mantenu tresnak (jasogailuak barne) - unitateka	30 € eguna

Iraulkiak, kontainerrak, obra-etxolak - unitateka	30 € eguna
Aldamioak eta obra-itxiturak	1, 20 € / ml
Zutoinak edo betoi-blokeak - unitateka	2 € eguna
Obra hondakinen isurtzea - m²ka	2 € eguna
Forfait gehigarria - bide baten hestea	75 € egun erdia
Jabari publikoa okupatzeko baimenik gabeko okupazioa edo baimenaren iraupena gainditzen duen okupazioa (tresna-jasogailuak, bideko instalazioak, zutoinak edo betoi blokeak)	75 € eguna
Tailer-ibilgailuaren aparkatzea, obraren ondoan: gehienez 12,5 m²ko azalera okupatzen duen ibilgailua edo 3,5 tonatik beherakoa (horiek gainditzen dituztenentzat ikus obrarentzako ezinbesteko instalazioak) - unitateka	5 € eguna

009 - E - Hatu merkatuko leku eskubideen salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herriko Kontseiluak, aho batez, honela finkatu ditu 2026ko urtarrilaren 1etik goitiko hatu merkatuaren leku eskubide sariak:

- 8 metro luze arte, sasoitik kanpo (martxoa, apirila, maiatza, ekaina, azaroa, abendua): 5,80 €

- 8 metro luze arte, sasoian (uztaila, agorrila, iraila, urria): 18 €

- metro luze gehigarri bakoitzeko: 2,60 €

009 - F - Bixkotx Bestako erakusketarientzako salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herriko Kontseiluak, aho batez,

Honela FINKATU DITU, euskal bixkotxaren bestako erakusketariek eremu publikoa okupatzeko sariak, 2026ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko direnak:

- - Arte ofizialeak oihal pean:
  - egun bat = 85 €
  - bi egun = 125 €

- - Arte ofizialeak beren materialarekin:
  - egun bat = 52 € 3 metrorentzat + 5 € metro gehigarri bakoitzeko
  - bi egun = 84 € 3 metrorentzat + 5 € metro gehigarri bakoitzeko

- - Ekoizleak oihal pean:
  - egun bat = 165 €
  - bi egun = 205 €

- - Ekoizle jaki saltzaileak:
  - egun bat = 52 € 3 metrorentzat + 5 € metro gehigarri bakoitzeko
  - bi egun = 84 € 3 metrorentzat + 5 € metro gehigarri bakoitzeko

- - Sukaldaritza elkarteak: 52 € bi egunentzako

- - Elektrizitate gastuak:
  - egun bat = 20 €
  - bi egun = 26 €

- - Euskal bixkotxaren bestarentzako karrusela: 85 €ko saria

- - Ahate arrantza eta beste: 55 €ko saria

- Ura behar duten karruselak (adibidez igerilekua): 20 €ko gainsaria

009 - G - Herri Bestetan jabari publikoa okupatzeko salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herriko Kontseiluak, aho batez,

Honela FINKATU DITU herriko bestetan jabari publikoa okupatzeko salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti:

Autodromoa	260 €
Pintza-garabia	110 €
"Mini-scooter" karrusela	165 €

	Txurro saltzailea	110 €	
	Tiro gunea	130 €	
	"Crazy Dance" karrusela	170 €	
	Kaskada gunea	130 €	
	Ahate arrantza	110 €	
	Goxoki saltzailea	130 €	
	Haurrentzako labirintoa	130 €	
	Karabina gunea	110 €	
	Haurrentzako karrusela	170 €	
	Kasino gunea	130 €	
	Ura kontsumitzen duten karruselak, igerilekua, saltokia, kasinoa bezalakoak	20 €ko gehigarria	

009 - H - Arnaga eremua alokatzeko salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herriko Kontseiluak, aho batez,

Honela FINKATU DU Arnaga gunearen alokairua 2026ko urtarrilaren 1etik goiti:

- **Ezteiak:**

- 4 000 € Kanboko biztanleentzat eta Arnaga eta urtesaria ordaindu duten Edmond Rostanden lagunen Elkarteko kideak

- Kanbokoak ez direnentzat:
  200 lagun baino gutxiago: 5 000 €
  200 lagunetik gora: 5 000 € + 250 € 50 lagun talde bakoitzeko

- **<u>50 lagun baino gutxiagoko harrerak instalazio berezirik gabe:</u>**

- 1 200 € Kanboko biztanleentzat eta Arnaga eta urtesaria ordaindu duten Edmond Rostanden lagunen Elkarteko kideak

- 1 700 € Kanbokoak ez direnentzat

- **<u>Laranjategia:</u>**

- 1 500 € Kanboko biztanleentzat eta Arnaga eta urtesaria ordaindu duten Edmond Rostanden lagunen Elkarteko kideak

- 2 500 € Kanbokoak ez direnentzat

- **<u>Lekuaren erabiltzea merkataritza- edo promozio-ekintza batentzat, baimena ukan eta gero:</u>**

- 750 € egun erdika

009 - I - Liburu azokaren salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti.

<u>ERABAKIA:</u>

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herriko Kontseiluak, aho batez,

<u>Honela FINKATU DITU liburu azokarentzako salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti:</u>

- Egileak: 10 € mahai-erdia
- Argitaletxeak: 20 € mahai-erdia

009 - J - gelen eta materialaren alokatzeko salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti.

<u>ERABAKIA:</u>

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herriko Kontseiluak, aho batez,

<u>Honela FINKATU DITU, gela eta material alokairuen prezioak, 2026ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko direnak:</u>

<u>Kiroldegia</u>

Kanboko elkarteen urrikako ekitaldiak	160 € + 150 € tapizak
Kanboko elkarteen ordainduriko ekitaldiak	330 € + 150 € tapizak
Kanbotik kanpoko elkarteen urrikako ekitaldiak	720 € + 150 € tapizak

Kanbotik kanpoko elkarteen ordainduriko ekitaldiak	1 500 € + 150 € tapizak
Pribatua	2 100 € + 150 € tapizak

Ezker pareta

Kanboko elkarteen urrikako ekitaldiak	80 €
Kanboko elkarteen ordainduriko ekitaldiak	160 €
Kanbotik kanpoko elkarteen urrikako ekitaldiak	550 €
Kanbotik kanpoko elkarteen ordainduriko ekitaldiak	1 300 €
Pribatua	1 400 €

Ezker paretaren eranskina eta dojoa

Kanboko elkarteen urrikako ekitaldiak	35 €
Kanboko elkarteen ordainduriko ekitaldiak	85 €
Kanbotik kanpoko elkarteen urrikako ekitaldiak	100 €
Kanbotik kanpoko elkarteen ordainduriko ekitaldiak	170 €
Pribatua	230 €

Zabalki

Kanboko elkarteak	100 €
Kanboko biztanleak	300 €
Kanbotik kanpokoak	650 €
Gordailua	500 €

Errugbiko egoitza

Kanboko elkarteak	100 €
Kanboko biztanleak	180 €
Kanbotik kanpokoak	300 €
Gordailua	500 €

Animazio aretoa

Irabazi asmorik gabeko animazioa	Urririk (500 €ko gordailua)
Irabazi asmoko animazioa • Kanboko elkarteak	65 € (500 €ko gordailua)
• Kanbotik kanpoko elkarteak	250 € (500 €ko gordailua)

Bilkura gela: Elorrimendi – Larrazkena – Zerbitzu gunea

Kanboko elkarteak	urririk
Kanbotik kanpoko elkarteak	32 €/ordu
Jabe elkartea eta pribatuak	32 €/ordu

Gordailua	500 €

Kirol gela barneko materialaren alokatzea

Mahai eta aulki - Kanboko elkarteak	urririk
Mahai eta aulki - Kanbokoak ez diren elkarteak	200 € mahaiak – 200 € aulkiak
Berogailua - Kanboko elkarteak	urririk + erregaia
Berogailua - Kanbotik kanpoko elkarteak	140 € berogailua + erregaia
Oholtza - Kanboko elkarteak	170 €
Oholtza - Kanbokoak ez diren elkarteak	200 €
Gordailua	200 €

Kirol gelatik kanpoko materialaren alokatzea

Mahai eta aulki - Kanboko elkarteak	urririk
Mahai eta aulki - Kanbokoak ez diren elkarteak	200 € mahaiak – 200 € aulkiak
Berogailua - Kanboko elkarteak	urririk + erregaia
Oholtza - Kanboko elkarteak	170 €
Materiala lekura eramateko forfaita (joan-etorria)	150 €
Gordailua	500 €

Herriko gelen alokatzea lizentziadunik ez duten eta federazio bati atxikiak ez diren kirol eta kultur elkarteei

Kanboko elkarteak	8 €/ordu
Kanbotik kanpoko elkarteak	18 €/ordu

Beharrezkoa honako dokumentuen ematea:
- Elkartearen estatutuak (suprefeturako egiaztagiria)
- Elkartearen segurantza
- Irakaslearen diploma
- Prezioen taula
- Diru eta jarduera txostena.

009 - K - Musika trenak alokatzeko salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herriko Kontseiluak, aho batez,

Musika tresnen alokatzeko prezioa 100 € urtean FINKATU DU, eta horri gehitu behar zaio 300 €ko gordailua. (tresna itzultzerakoan berrikuspenaren egiaztagiria aurkeztu behar da)

009 - L - Autokarabana gunearen salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti.

ERABAKIA:
Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herriko Kontseiluak, aho batez,

FINKATU DITU: autokarabana-gunearen salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti:

Aparkatzea:

24 orduko tarteka (1)..... 15.00 €
(1) Barne diren zerbitzuak: ura – hustea – elektrizitatea – wifi
Egonaldi zerga barne: 0,86 €

Aparkatzeaz gainerako zerbitzuak:

Ura ..... 5.00 €
Hustea ..... urririk

Autokarabanen diru-itzultze eskaerak:

Ez ohiko egoeretan, honako kasuetan onar daiteke lehenago joaten direnei dirua itzultzea:
- Osasun arrazoiak;
- Familia arrazoiak;
- Aginteek erabaki neurriak (etxeratze agindua…)
- Terma egoitzak egonaldia deuseztatzen duenean.

Egiaztagiriak aurkeztu beharko dira. Ez da beste arrazoirik onartuko.

009 - M - Fotokopien salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herriko Kontseiluak, aho batez,

FINKATU DITU: fotokopiak egiteko salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti:

A4 formatua	0.25 €
A4 formatua recto/verso	0.30 €
A3 formatua	0.30 €
A3 formatua recto/verso	0.35 €

009 - N - Baratzeen hitzorduen salneurriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapez ordea, proposaturik eta eztabaidatu eta gero, Herriko Kontseiluak, aho batez,

Honela FINKATU DITU baratzeen hitzorduetarako erakusketarien salneurriak, 2026ko urtarrilaren 1etik goiti:

- Standa < 20 m²: 60 e bi egunentzat
- Standa 20 eta 80 m² artean: 80 € bi egunentzat
- Standa > 80 m²: 120 bi egunentzat

HITZ HARTZEAK:

Philippe Bacardatz jaunak ohartarazi du, urari dagokionez, erabiltzaileek uraren prezioa ordaintzen dutela eta uraren tratamenduarena ere bai, baina autokarabanek ura soilik ordaintzen dutela, ez tratamendua.

Eliane Aizpuru andereak zehaztu du ez dela soilik ura, baina ura eta saneamendua.

Jean-Paul Alaman jaunak galdetu du herriko etxebizitzek irizpide sozialak betetzen dituztenez eta ea, eskasia egoera batean, etxebizitza horiek herriko etxebizitza lagunduen artean konda daitezkeenez.

Auzapezak erantzun dio etxebizitza batzuek irizpide sozialak betetzen dituztela eta ondorioz etxebizitza lagunduen artean konda daitezkeela. Zehaztu du kasu gehienetan alokairu sariak merkatuaren prezioak baino merkeago direla.

Jean-Paul Alaman jaunak ohartarazi du igerilekuko zaindariaren egoitzak, horiz agertzen dena, alokairu biziki apala duela beste etxebizitzekin alderatuta, eta ez dagoela zerbitzu-premia baten aipamenik.

Auzapezak zehaztu du oraingoz lokal hura ez dela okupatua. Tenis zelaietako lanen denboran erabilia izan da eta herriak gogoeta segitzen du haren erabilpenari buruz. Bertan zaindari bat ezartzearen aukera aztertzen ari dira, bereziki kirol eremuaren handitzearekin eta bertan agertu diren oieskeriekin. Aipatu du aukera hori atxikiko balitz lan handiak egin beharko liratekeela.

Nathalie Aïçaguerre andereak G eta F energia-eraginkortasun diagnostikoko etxebizitzez galdetu du. Frantziako legeak alokairua emendatzea debekatzen du eta energia-eraberritze lanak aurreikusi beharko dira alokatzaileen fakturak murrizteko.

Auzapezak zehaztu du kasu horretan diren etxebizitzen kopurua mugatua dela (3 eta 5 artean) eta haietako batzuk ez direla alokairuan ematen. Aipatu etxebizitzari dagokionez, herriak egin beharreko obrak aztertzen ditu errenta eta okupazioarekin loturik, besteak beste hilerriko zaindariaren etxebizitzarentzat, zeinak energia anitz kontsumitzen baitu. Beste etxebizitzek oraindik ez dute balizko alokatzailerik.

010 - Essor Cycliste Basque lasterketa: 2026ko hitzarmena.

ERABAKIA:

Didier Irastorza jaunak, auzapez ordea, oroitarazi du urtero Essor Basque bizikleta lasterketa kirol gertakari nagusia dela gure lurraldean. Maila handiko tropela biltzen da eta ikusle ugari erakartzen du.

2026ko edizioak lasterketaren 50. urtemuga ospatuko du, eta Kanbon egin zen lehen helmugaren 40. urtemuga.

« Circuit de l'Essor – Epreuve élite open » deituriko probaren xehetasunak:

- Data: 2026ko otsailaren 1a
- Abiatzea: Zuraide
- Abiatze tenorea: 14:00
- Ibilbidea: 23 kmko itzulia: Zuraide-Ezpeleta-Uztaritze-Arnaga
- Itzuli kopurua: 5
- Pasatzeak: itzuli bakoitzean Edmond Rostan hiribideko helmuga lerroa gaindituko dute.
- Helmuga nagusia: Kanbo - helmuga lerroa Sorhainde aparkalekuaren aitzinean izanen da, Edmond Rostand hiribidean.

Antolatzaileek 2500 €ko diru-laguntza eskatzen dute, maiatzean antolatzen duten proba berriaren antolaketa kontuan izanik.

Herriko Kontseiluak, Irastorza jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU Essor Basque lasterketaren antolatzaileei 2500 €ko diru-laguntza ematea 2026ko otsailaren 1ean iraganen den lasterketarentzat.

BAIMEN EMAN DIO Auzapezari honi datxikon hitzarmena izenpetzeko baita dagokion beste agiri oro ere bai.

HITZ HARTZEAK:

Philippe Bacardatz jaunak galdera egin du diru-laguntzaren zenbatekoaz, bereziki 2025ean abiatze eta helmugarentzako eman baitzen.
Didier Irastorza jaunak zehaztu du diru-laguntza 3 500 €koa zela.

Bacardatz jaunak galdetu du ea aurten diru-laguntzak Iratiko probarentzako balio duenetz.

Auzapezak adierazi du 2 500 eko diru-laguntza helmugarentzat besterik ez dela eta heldu den urtean helmuga bera mantentzen badute baina Iratiko proba gabe, orduan diru-laguntza 2 500 €koa izanen dela baita ere.

Didier Irastorza jaunak oroitarazi du txandakatzea deliberatu zela: urte batez abiatzea eta helmuga, eta ondoko urtean helmuga bakarrik.

011 - AGAZ: Pasaporte Hiritarra dispositiboaren ezartzea - AIGA pasatzeko herriko beka.

ERABAKIA:

Auzapezak honakoa aurkeztu du:

Kanbo herriak gazteak akuilatu nahi ditu animazioan engaia daitezen eta horretarako AIGA formakuntzarako sarbidea erraztu nahi die, zeren formakuntzaren kostua zenbait familiarentzat gehiegizkoa baita.

Hori dela-eta, "Pasaporte hiritarra - Herriko AIGA (Animatzaile Izateko Gaitasun Agiria) beka" ezartzea proposatzen da 16 eta 25 urte arteko kanboarrentzat, AIGA formakuntza egin eta gero herriko AGAZean (Aterperik Gabeko Aisialdi Zentroa) engaiatu nahi badute.

Eskaintza honek honako ezaugarriak ditu:

- Onuradunek 16 eta 25 urte artekoak izan behar dute eta Kanbon bizi.
- AIGA formakuntza segitzen dute IFAC formakuntza egituran (formakuntza orokorra - ikastaroa - sakontze saio) 550 €ko kostu batean.
- Herriak 350 €ko diru-laguntza emanen dio bakoitzari, zuzenean formakuntza zentroari ordainduta, FaLKen laguntzaz gain (+/- 200 euro), eta urtean gehienez 10 onuradun izanik.
- Ordainetan, gazte bakoitza engaiatzen da 6 astez Kanboko AGAZean lan egitera.
    - 3 aste AIGArentzako ikastaroa izanik,
    - 3 aste animatzaile lanetan,
    - hots, 5 aste ordaindurik eta aste 1 boluntario gisa (ordaindu gabe).

Hautagaiek txosten osoa aurkeztu beharko dute (nortasun agiria, helbide egiaztagiria, CV, motibazio gutuna, txertatzen liburuxka, AIGArako izen ematea, AGAZean 6 astez aritzeko engaiamendu idatzia). Txostenak aztertzeko epaimahaian izanen dira gazteriaz arduratzen den hautetsia, Haurtzaro-Gazteria-Hezkuntza zerbitzuko arduraduna eta AGAZeko zuzendariak. Gazteen segipena eginen da dispositiboaren iraupen osoan zehar. Engaiamenduak ez badira betetzen (formakuntza bukatu gabe, asteak egin gabe,...) eta zilegitasunik gabe arrazoirik egiaztatu gabe, herriak beka osoa edo zati bat itzultzea eska dezake.

Herriko Kontseiluak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU 2026tik goiti "Pasaporte hiritarra - Herriko AIGA (Animatzaile Izateko Gaitasun Agiria) beka" ezartzea lehenago eta eranskinean zehaztu baldintzetan.

FINKATU DU: urtean gehienez 10 beka izanen direla, horrenbeste onuradunentzat, eta beka bakoitzaren zenbatekoa 350 €koa izanen dela.

ZEHAZTU DU horretarako kredituak izanen direla urteroko herriko aurrekontuan, funtzionamendu ataleko behar den kapitulu eta artikuluetan.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari dokumentu oro izenpetzeko (engaiamendu gutunak, formakuntza zentroarekiko hitzarmena, administrazio-agiriak,....) eta behar den neurri oro hartzeko "Pasaporte hiritarra - Herriko AIGA (Animatzaile Izateko Gaitasun Agiria) beka" dispositiboa indarrean ezartzeko.

Abstentziora jo dute: Peio Etxeleku (ahalordearekin), Jean-François Lacosta, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy.

HITZ HARTZEAK:

Amaia Beyrie andereak AIGA formakuntzarako ekimena txalotu du, baina galdetu du zergatik IFAC formakuntza zentroa bakarrik hautatu den, jakinez beste eragile batzuek, hala nola Uda Leku eta Garaziko Francesenia lizeoa, kalitatezko formakuntzak eskaintzen dituztela. Ez du ulertzen zergatik herriaK esklusibitatea eman dion formakuntza zentro horri.

Auzapezak zehaztu du lehenago AGAZaren antolaketa UFCVren esku zela, zeina ez baita gehiago existitzen. Herriak zailtasun handiak izan ditu formakuntza egitura baten atzemateko, eta IFACik gabe langile talde oso bat kontratatu beharko zen, eta hori ezinezkoa da. IFAC-ek behar den malgutasuna du eta formakuntza Kanbon eskaintzen du. Hori da gaur egun formakuntza antolatzen eta eskaintzen duena, eta momentuz hola mantenduko da.

Argitxu Hiriart-Urruty anderearen ustez bekaren esleipena hautatzen den formakuntza zentrotik deslotua izan behar dela. Azpimarratu du Uda Lekun eta Francesenia lizeoan formatu diren gazteek Kanboko AGAZean lan egin dezaketela, kalitatezko langileak izateko helburua beterik. Deitoratu du baita ere IFAcek ez duela formakuntza euskaraz eskaintzen, eta zehaztu du Uda Lekuk eta Franceseniak baietz.

Auzapezak azaldu du herriak hautu hori egin duela lehen urterako, zeren IFAC izan baita formakuntzarako eskaintza egin duen lehen egitura. Beste eragileak, Uda Leku eta Francesenia, ez dira aurkeztu. Antolaketa horrekin kontratatzeko dauden zailtasunak, baita IFAcekin ere, arintzen ditugu, eta kontrataziorako malgutasun gehiago izanen dugu. Zehaztu du ez dagoela esklusibitaterik hurrengo urteetarako eta egoera aldatzen ahalko dela.

Amaia Beyrie andereak deitoratu du ezin baita aldaketarik egin esklusibitate klausula kentzeko, eta testuan malgutasunik ez izatea.

Auzapezak zehaztu du ez dagoela klausularik ez eta engaiamendu itsurik. Herriak IFACekin engaiatua izaten segitzen du zentroaren funtzionamenduarentzat, jarraikortasuna eta antolaketa ona bermatuz. Oroitarazi du IFAC hautatu dela aurtengo, baina ez dagoela esklusibitaterik datozen urteetarako. Beste erakunde batzuek, adibidez Francesenia, aterabideak proposatzen badituzte aztertuko dira.

Peio Etxelekuren aburuz, Amaia Beyrieren oharra zentzuzkoa da eta proposatu du testua aldatzea beka IFACentzako eta lurraldeko beste edozein egitura baimendurentzako balio dezan.

Auzapezak zehaztu dena alda daitekeela, baina lehen urterako 10 postu eskaini zaizkio IFACi, baldin eta gehiengoak hala erabakitzen badu. Berretsi du, datozen urteetarako herriak formakuntza beste eragile batzuei irekitzen ahalko diela, proposamenak egiten badituzte.

Peio Etxeleku jaunak zehaztu du alde bozkatuko duela aldaketak kontuan hartzen badira, bestela kontra bozkatuko duela.

Auzapezak berretsi du lehen urte honetarako 10 postuak IFACi proposatu zaizkiola eta hala geldituko dela. Azpimarratu du proposatzen den emendakinak testuaren aldaketa txikia baizik ez duela ekarriko.

Xabier Heguy jaunak boluntario gisa egin beharreko asteaz galdetu du: ikastaroko astea al da, ala beste hiru asteetako bat?

Auzapezak eta Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak zehaztu dute aste gehigarria dela.

Heguy jaunak ordaindu gabeko lanaren gaia aipatu du eta istripu arriskuak.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak oroitarazi du partehartzaileak AIGA ikastaroan direla, beraz estatus bat badutela, eta ordaindu gabeko astea ikastaroaren baitan kokatzen dela.

Auzapezak eta Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak zehaztu dute parte hartze hori ez dela ordaindua, beraz dohainik egina, baina ikastun estatusarekin egiten dela.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak parte hartzen duten gazteen lansaria zenbatekoa den galdetu du.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak zehaztu du 79 € eguneko ordainduak direla, hots 400 € astean, erran nahi baita gutxieneko soldataren heinekoa.

Auzapezak zehaztu du proposamen koherentea dela indarrean den laneko legediarekin.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak azpimarratu du formakuntza egitura gehiagori irekitzeak Kanbon gazte euskalduna kontratatzea ahalbidetuko lukeela eta deitoratu du herriak IFACera mugatzea.

Auzapezak oroitarazi du IFACen proposamena izan dela lehena eta lehen urte honetarako baieztatu dela kontratatzeak errazteko xedearekin. Zehaztu du beste egiturek, Francesenia eta Uda Leku, ez zutela ordurako formakuntza proposamenik egin eta datozen urteetarako herriak aukerak zabaltzen ahalko dituela.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak dolu du gaia ez baita haurtzaro-gazteria batzordean eztabaidatu, eta salatu du batzordea ez dela gehiago biltzen.

Auzapezak batzordeen biltzeaz irakaspenik ez ematea iradoki du, eta azpimarratu du, bide batez, finantza batzordearen saio garrantzitsuan oposizioko kiderik ez dela izan.

Philippe Bacardatz jaunak adierazi du oposizioko kideak erregularki presente direla finantza batzordean eta deitoratu du gai horri buruzko deirik ez ukan izana.

012 - Enedis: pasatzeko-eskubideko hitzarmena Erdalasko Larria lekuan.

ERABAKIA:

Jean Noël Magis jaunak, auzapez ordea, honakoa azaldu du:

Ehiztarien etxolara elektrizitatea eramateko proiektuaren baitan, Enedis sozietatearekin pasaia eskubide bat ezarri behar dugu.

Herriko Kontseiluak, Magis jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari honi datxikon hitzarmena izenpetzeko baita dagokion beste agiri oro ere bai.

HITZ HARTZEAK:

Philippe Bacardatz jaunak ehiztarien etxolarekiko hitzarmenaz galdetu du, bereziki jakiteko nork hartzen dituen bere gain elektrizitate lanak eta konexio gastuak, jakinez orain arte etxolak ez zuela elektrizitaterik.

Auzapezak erantzun dio herriak ez duela etxola egoera informal batean utzi nahi eta konexio gastuak herriak eta ehiztarien elkarteak partekatuko dituztela.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du ea herriko etxeak hartuko dituen instalazio gastuak.

Auzapezak erantzun dio lan horiek ehiztarien elkarteak ordainduko dituela, ez herriko etxeak.

013 - Chêne programaren baitako lankidetza hitzarmena.

ERABAKIA:

Vincent Goytino jaunak, auzapez ordea, biltzarkideei oroitarazi die "Chêne 3" funtsen helburua dela erakunde publikoen hirugarren sektoreko eraikinetan egiten diren energia-eraginkortasuneko ekintzei loturiko antolaketa gastuak laguntzea. Energia kontsumoak murrizteko ekintzak masifikatzeko bateratze proiektuak dituzten eragile publikoek ere ukan ditzakete laguntza horiek.

Klima-Planaren ildotik, Euskal Elkargoak bere kide diren herriak laguntzen ditu energia-trantsizioa plantan ezartzen.

Horrela, Euskal Elkargoa erakunde publikoen energia-eraginkortasuna garatzeko ACTEE+ programara aurkeztu da. Programak laguntza teknikoa eta antolakuntzazkoa eskaintzeaz gain, kofinantzazio eta obra-koordinatzaileari laguntza eskaintzen du tokiko erakundeen eraberritze proiektuentzat.

Hitzarmena izenpetuko denean sartuko da indarrean, eta 2026ko abenduaren 31n bukatuko da (Chêne 3 programa 2026ko irailaren 30ean bukatzen da).

Talde horretako kide dira:
- Euskal Hirigune Elkargoa
- Bidarte
- Bokale
- Kanbo
- Gixune
- Idauze-Mendi
- Urruña
- Uztaritze

Herriko Kontseiluak, Goytino jaunaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU honi erantsia zaion ACTEE+ programa ezartzearen baitako funtsen birbanaketa hitzarmenaren xedapenak.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari hitzarmena izenpetzeko baita dagokion beste agiri oro ere.

HITZ HARTZEAK:

Argitxu Hiriart-Urruty andereak energia kontsumoaren murrizteko proiektuez galdetu du.

Vincent Goytino jaunak erantzun dio etortzekoak diren proiektu guztiak direla. Auditoriak jadanik egin dira, bereziki biztanleak errezibitzen dituzten herriko eraikinenak ELENA proiektuaren baitan, eta lanak eginen dira. Bereziki aipatu du Behereko Plazako eskolako etxebizitza.

Peio Etxeleku jaunak adierazi du lanak 2026an bukatu behar direla.

Vincent Goytino jaunak zehaztu du hitzarmena 2026ko abenduaren 31an bukatzen dela.

Etxeleku jaunak ohartarazi du eskuhartze lekuak ez direla zehaztu.

Auzapezak erantzun dio erabakirik ez dela hartu.

Goytino jaunak zehaztu du ikerketa egina dela, baina proiektua eta inbertsioak zehaztu behar direla oraindik.

014 - Euskal Elkargoa: Karga Transferituen Ebaluaziorako Tokiko Komisioaren (KTETK/CLECT) txostenen onespena.

ERABAKIA:

Auzapezak honakoa aurkeztu du:

Ikusirik, Lurralde Kolektibitateen Frantziako Kode Orokorra

Ikusirik, Frantziako Zergen Kode Orokorra, bereziki haren 1609 nonies C artikulua;

Ikusirik, Euskal Hirigune Elkargoaren 2020ko uztailaren 31ko erabakia, zeinak finkatzen baitu Euskal Elkargoko Zerga Transferituen Ebaluaziorako Tokiko Komisioaren (ZTETK) osaketa;

Ikusirik, Euskal Hirigune Elkargoko Lehendakariaren 2025eko ekainaren 2ko ordenantza, ZTETKeko kideen zerrenda eguneratzen duena;

Ikusirik, ZTETKen 2025eko irailaren 17ko 1. eta 2. txostenak, jarduera ekonomikoko eremuen zerga transferentzien ebaluazioari buruzkoak eta elkargo intereseko bideei buruzkoa.

Herriko Kontseiluak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DITU eranskinean agertzen diren 2025eko irailaren 17 ZTETKren 1. eta 2. txostenak.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari erabaki honen egikaritzeko izapide oro egiteko eta gai honi buruzko dokumentu oro izenpetzeko.

HITZ HARTZEAK:

Auzapezak jarduera ekonomikoko erremuen eta elkargo intereseko bideen zergei buruzko ZTETK aurkeztu du. Bi txosten helarazi dira eta eztabaida zabalak eragin, herrien hitz hartze anitzekin, konpentsazioen esleipenean duten eragina dela-eta.
Lehen kasuan, herri xedeko JEE (jarduera ekonomikoko eremuak) elkargoko eskumen izatera pasatzen dira. Honakoak dira neurriak hunkitzen dituen herriak: Aiziritze, Bardoze, Ezpeleta, Gixune, Hazparne eta Bastida. Adibidez, Ezpeletaren konpentsazio esleipena 12 732 €z ttipitu da, hots beherakada nabarmena.
Bigarren kasuan, elkargo intereseko bideei loturiko zergak beste zentzuan transferitzen dira. Zenbait bide, bereziki kostaldean, herrien eskumenera itzultzen dira eta etorkizunean herriek dituzte mantendu beharko. Honakoak dira gehien hunkituak: Angelu (26 km), Baiona (11 km) eta Biarritz (13 km), orotara 50 km. Honakoak dira konpentsazio esleipenentzat atxiki diren ebaluazioak: Angelu 862 000 €, Baiona 445 000 € eta Biarritz 415 000 €. Auzapezak zehaztu du, ebaluazio horiek, gaitzetsiak izan arren, zerbitzuek egin dituztela beste lurralde erakundeen praktikak kontuan hartuz.

Peio Etxeleku jaunak zehaztu du ebaluazioa kostu teorikoetan oinarritzen dela eta ez kostu historikoetan, zeinek kalkulurako beste oinarri bat eskain zezaketen.
Auzapezak baieztatu du kalkuluak egin direla eta ratio batzuk atxiki dituztela ebaluazio horien egiteko.

015 - Euskal Elkargoa: irisgarritasun datuaren bilketarako hitzarmena.

ERABAKIA:

2019ko abenduaren 24ko Frantziako 2019-1428 legeak, mugikortasunen orientazioari buruzkoa, elbarrituentzako eta orokorrean bidaiari guztientzako pertsonen informaziorako lege xedapen berriak sortu ditu. Xedapenok lurralde erakundeak eta beren taldeak behartzen dituzte mugikortasunen kate osoa hartzen duten irisgarritasun datu baseak sortzera, eraikinak, bideak, eremu publikoaren antolamenduak, garraio sistemak eta intermodalitateak kontuan hartuz.

Datu gordinei esker erabiltzaileek informazioa jasotzeko aukera izan behar dute aplikazio digitalen bidez, hala nola ibilbide-kalkulagailuak (elbarrituentzako ibilbide irisgarrien identifikazioa).

2021eko larrazkenetik, Euskal Hirigune Elkargoa eta bere esparruko 5000 biztanletik gorako 15 herriak, Irisgarritasunen aldeko Herri Batzordeak/Herri arteko Batzordeak sarearen baitan, lanean ari dira Ipar Euskal Herri mailako irisgarritasun datu bilketa antolatzeko bide-orria idazteko.

Erakunde guztiek datu bilketa antzekoa izanen dutenez, Euskal Hirigune Elkargoak proposatu du berak koordinatuko lukeen eskaera-talde bat osatzea.

Eskaera-taldea hori bertan parte hartu nahi duten 5000 biztanletik gorako 15 herrientzat pentsatua da. Talde horretako kide izateko erabakia hartu behar da eta ondotik eraketa-hitzarmena izenpetu.

Deialdia, eskaera-orrientzako esparru-akordio baten itxura duena 2024 hasieran abiatu zen. Merkatua 2024ko bigarren seihilekoan izenpetu zen hiru urterako. Kanbo herriari proposatzen dio eskaera-talde horretako kide izatea.

Herriko Kontseiluak, aurkezlearen azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU honakoari erantsia zaion eskera-taldearen eraketa-hitzarmenaren xedapenak, irisgarritasun datuen bilketa zerbitzua erosteko.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari hitzarmena izenpetzeko eta horri dagokion egintza oro.

HITZ HARTZEAK:

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak zehaztu du erabaki honek proposatzen duela Kanbo herria eskaera-taldeko kide izatea, irisgarritasun datuen bilketarako Euskal Hirigune Elkargoak sortua, mugikortasunen orientazio legeak ezarri betebeharren betetzeko.
Dispositibo horren xedea da Ipar Euskal Herri mailako baliabideak bateratzea eta datuen bilketa harmonizatzea, erabiltzaileei informazio hobea eskaintzeko, bereziki elbarrituei, ibilbide-kalkulagailuak bezalako tresna digitalen bidez.
Taldea 5000 biztanletik gorako herriei irekia da. Helburua da herriko eraikinak eta horiengandik hurbil diren autobus geldilekuak identifikatzea eta gero autobus geldilekuen eta eraikin publikoen arteko ibilbideak geografikoki lotzea. Bildutako datuak tresna instituzionaletan aurkituko dira, hala nola Geobasque, baita erabiltzaileentzako

aplikazioetan, itsuek eta elbarrituek beren bidea atzeman dezaten herriko eraikinetara joan nahi badute.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du ea Kanbon ba ote den jadanik leku identifikaturik autobus geldilekuak eta herriko eraikinak elkarren artean lotzeko. Halaber galdetu du zein den ibilbide horien egiazko irisgarritasuna, proposatuko diren soluzioak eraginkorrak izanen direla bermatzeko.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak zehaztu du eraikinen zerrenda ez dela oraindik osatua. Adibidez, Herriko Etxeak, GEUZak edo Arnagak badute autobus geldileku bat hurbil. Leku nagusiak identifikatu dira eta gero ibilbideak zehaztuko.

016 - Euskal Elkargoa: Ezker-pareta eraberritzeko eskuhartze funtsen esleipenaren onespena.

ERABAKIA:

Auzapezak honakoa aurkeztu du:

Ikusirik, Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorra eta bereziki L 5216-5 VI artikulua;

Ikusirik, Euskal Hirigune Elkargoak bere herrikideentzako egin duen parte hartze funtsen araudia, 2023ko martxoaren 4ko Batzorde Nagusian OJ07 erabaki bidez onartua ;

Ikusirik, Batzorde nagusiaren 2024ko irailaren 27ko erabakia, non Euskal Hirigune Elkargoak 136 251 € esleitu dizkigun herri ezker-paretaren berritzeko, herriak hala eskaturik;

Kontuan izanik parte hartze funtsaren emateko Herriak eta Elkargoak bat datozen erabakiak hartu behar dituztela;

Herriko Kontseiluak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU Euskal Hirigune Elkargoak parte hartze funts gisa 136 251 € esleitzea, ezker-paretaren eraberritzeko;

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari eranskinean den finantzazio hitzarmena izenpetzeko.

017 - Urgentziazko etxebizitza: hitzarmena Soliha-rekin.

ERABAKIA:

Auzapezak honakoa aurkeztu du:

Kanbo herriak behin behineko etxebizitza bat ukan nahi luke zailtasun handian diren familiei (familia barneko indarkeria, bizitzaren ezbeharra, baliabideen galtzea, banaketak, etxegabetzeak, gehiegizko zorpetzea,...) iraupen laburreko aterpetze baten eskaintzeko.

Horretarako, SOLIHA Pays Basque elkartearekin alokairua kudeatzeko hitzarmen bat izenpetzea proposatzen da. SOLIHA frantses estatuak egiaztatu egitura da zailtasunetan diren pertsonei

etxebizitza aterabideak eskaintzeko. Hitzarmena BRU etxeko lehen solairuko T2 motako etxebizitza batentzat egingo litzateke, Kanbon. Aterpetuei 400 €ko saria eskatuko zaie, horri gehitu beharko zaizkiolarik 120 € karga aurrerakin gisa (ura, elektrizitatea, hondakinen bilketa).

Etxebizitza behin-behineko aterpetzerako pentsatua da (1 eta 3 hilabete artean, behin errepikatzeko aukerarekin) honako kasuentzat:

- genero edo familia barneko indarkerien biktimak,
- bizitzaren ezbehar ekonomiko edo soziala pairatzen duten familiak, zeinen ondorioz beren egoera zakarki makurtzen den. Eskaera egiten duten familien kasua banan-banan aztertuko da, baina beti ere Kanbon bizi edo lan egin behar dute edo Errobi elkargoarekin lotura bat izan. Etxebizitzaren esleitzeko erabakia Auzapezak (lehendakaria), herriko hiru hautetsik (oposiziotik 1) eta GEUZak (3 hautetsi, bat oposizioko izanik) osatu batzorde bereziak hartuko du. Batzordean izanen da baita ere GEUZeko zuzendaria eta menturaz egoera horren erreferente soziala, baina erabakitzeko ahalmenik gabe.

Hitzarmenak SOLIHA Pays Basque-ren esku uzten du:

- etxebizitzaren alokairuaren kudeaketa: sartze eta ateratzeen administrazio-kudeaketa, behin behineko alokairu kontratuen erredakzioa eta horien azaltzea, sartze eta ateratzeko egoera-aktak, etxebizitzarako laguntzen eskatzea eta segitzea, okupazio ordainsarien eskuratzea, segurantzaren egiaztatzea, etxebizitza ekipatu batentzako segurantza hartzea, herriko etxea jakinean atxiki lanak egin behar badira,
- SOLIHAren izenean eginen diren harpidetzen kudeaketa (ura, elektrizitatea) eta gastu horien ordainaraztea karga aurrerakin gisa,
- asistentzia juridiko misio bat, herriko etxeak erabakirik, erabiltzailearekin gatazka sortzen bada (abisuak, uxerrak, kanporatze prozedurak, txostenaren segipena, eta abar).

Kanboko GEUZak aterpetuak diren familien laguntza egiten segituko du, beharrezkoa baldin bada erreferente sozialarekin.

Alokairu-kudeaketa eginkizunaren truke, SOLIHAk urtean gehienez hiru familia kudeatzeagatik 1 300 € jasoko ditu zerga guziak barne. 4. familiatik goiti, familia berri bakoitzeko 150 € ZB ordainduko da. Asistentzia juridikoari dagokionez, gaiaren konplexutasunaren arabera sariak aurreikusi dira (txosten arina edo astuna, aginduen erredakzioa, memoriak, auzian egotea, prozeduraren segipena). Zenbateko guzi horiek urtero Alokairuen Erreferentziazko Indizean indexatuko dira; 2025eko 3. hiruhilekoan 145,77 €.

SOLIHAk urtero ustiapen-txosten zehatza (sartzeak eta gastuak) aurkeztuko du abenduaren 31an. Etekina positiboa baldin bada, hurrengo urtera pasatuko da; negatiboa baldin bada, herriak SOLIHAri ordainduko dio 45 eguneko epean. SOLIHAk berantenik ondoko urtearen martxoaren 31 baino lehen aurkeztu beharko du alokairu-kudeaketaren faktura.

Hitzarmena 2026ko urtarrilaren 1ean sartzen da indarrean, urte beterako, berez eraberritzeko aukerarekin. Aldeetako batek hitzarmena eten dezake, gutun egiaztatu bidez, abenduaren 31 baino hiru hilabete lehenago gutxienez abisatuz.

Herriko Kontseiluak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU SOLIHA Pays Basque-rekiko behin-behineko etxebizitza baten alokairu-kudeaketa hitzarmena, honakoari erantsia zaion bezala.

ADIERAZI DU horretarako gastuak urteroko herriko aurrekontuan txertatuko direla (alokairu-kudeaketaren ordaintzea, menturazko asistentzia juridikoa, ustiapen defiziten ordaintzea), funtzionamendu ataleko behar diren kapitulu eta artikuluetan.

BAIMEN A EMAN DIO Auzapezari hitzarmen horren izenpetzeko baita ere datxikon emendakin edo dokumentu oro, eta neurri horren egikaritzeko neurri oro hartzeko.

HITZ HARTZEAK:

Amaia Beyrie anderea proposatu den alokairu sariaren zenbatekoarekin ez da ados. Oroitarazi du, lehen (apezetxearen alokairua), aipatu zen errenta alokatzailearen diru-gaitasunari egokitu behar zela, ikuspegi soziala azpimarratuz. Urgentziazko etxebizitza behar duten jendeek zaurgarritasun ekonomiko larria bizi dute eta 400 € eskatzea T2 batentzat, gehi 120 € karga sobera da eta ez dagokio urgentzia egoera bati.

Auzapezak zehaztu du herria SOLIHAk egin proposamenean oinarritu dela, ez duela berak zenbatekoa finkatu. Adierazi du erabiltzaileak behin eraberritu daitekeen 3 hilabeteko iraupen batentzat aterpetuko direla.
Gehitu du, egiazko zailtasun ekonomikoak badituztela, alokairu-saria egokitzeko klausula bat gehitzen ahalko dela eta segurenik SOLIHAren proposamenean jadanik badela halakorik. Azpimarratu du aterpetzen den pertsona zailtasun handian baldin badela, alokairu saria (errenta) egokitzen ahalko dela. Herriak SOLIHAk proposatu baldintzak hartu ditu.

Amaia Beyrie andereak ezadostasuna adierazi du. Etxebizitza herriarena da eta neurri batean GEUZak duela finantzatu, eta ez dela onargarria SOLIHAk saria finkatzea.

Auzapezak ez du bat egin baieztapen horrekin.
Zehaztu du etxebizitza ez duela GEUZak erosi edo finantzatu modu autonomoan. Adierazi du erosketa GEUZaren etekinekin ordaindu dela, herriak eman diru-laguntzen etekinetatik. Etekin horiek urgentziazko etxebizitza sozialetara bideratu ziren. Herriak zailtasunak daudenean du parte hartzen.
Oroitarazi du alokairu-saria SOLIHAk proposatzen duela eta okupatze aldia 3 hilabetekoa dela, behin eraberritzeko aukerarekin, egonaldiak mugagabeak izan ez daitezen. Zehaztu du SOLIHAk dituela finantza elementuak ezarri. Alokairu-saria apaltzeko klausula bat ezartzearen alde dago, pertsona edo familiaren diru-iturrien arabera.

Jean-Paul Alaman jaunak etxebizitza horren esleipenaz galdetu du, zehazki zergatik Kanboko biztanleriari lehentasuna ematen zaion.

Auzapezak zehaztu du SOLIHAk duela kudeatzen, baina kanboarrek eta inguruetakoek dutela lehentasuna. Kanboarrak lehenesteko borondatea bada.

Jean-Paul Alaman jaunak kudeaketa kanpoko egitura baten esku uzteko premiaz galdetu du, hots SOLIHA, eta herriak ezin ote duen berak hori kudeatu.

Auzapezak zehaztu du SOLIHA gai horietan aditua dela, usu egiten dituztela horrelako kudeaketak eta ondorioz arrazionalagoa dela horrelako egitura betan eskuhartzea eskatzea.

Vincent Goytino jaunak azpimarratu du SOLIHA oso aditua dela holako etxebizitzen kudeaketan, ez dela haien lehen esperientzia. SOLIHAren ustez 400 €ko saria egokia da, baina bada horren egokitzeko aukera pertsonak zailtasunak baldin baditu. Oroitarazi du, laguntza sozialarentzat eta eguneroko kudeaketarentzat SOLIHA herria baino egokiagoa dela.

Auzapezak zehaztu du herriak atxikitzen duela, behar izanez gero, alokairu-saria apaltzeko aukera, erabiltzailea Kanboarra denean. Adierazi du klausula hori gehituko dela alokairu kontratuan, egin berri diren oharrak kontuan hartzeko.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdetu du zenbat urgentziazko etxebizitza zeuden orain arte.

Auzapezak zehaztu du herriak urgentziazko etxebizitza bakarra zuela. Azpimarratu du beste herriekin konparatuz bi eskaintzea egoera ezohikoa dela.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak sorpresa adierazi du 7000 biztanleko herri batek urgentziazko etxebizitza bakarra ukaiteaz, herriko beste zenbait etxebizitza hutsik dauden bitartean.

Auzapezak zehaztu du Hazparne dela bakarra Kanbo bezalako etxebizitza duena, eta SOLIHAk duela kudeatuko. Bigarren etxebizitzari dagokionez, Kanbok inguruko herriko etxeekin bateratu nahiko luke, klima hondamendia egoerei erantzuteko, baina dolu du ez baitu lortu Errobi eremuan ideia hori onarrarazten. Oroitarazi du suteak edo uholdeak gertatzen direnean zenbait pertsona aterpetu behar direla aldiberean, eta ez dira erraz kudeatzen diren egoerak.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak azpimarratu du, bi urgentziazko etxebizitza izanik ere, ez dela aski, eta galdetu du agintaldi denboran zenbat diren karrikan gelditu diren Kanboko emazteak indarkerien biktimak izan direlarik.

Auzapezak oroitarazi du herriak ezin dituela zailtasun egoeran diren pertsona guztiak bere gain hartu. Azpimarratu du beste egitura batzuek, Atherbea bezala, laguntza eskaintzen dutela. Gehitu du dagoeneko Kanbok urgentziazko bi etxebizitza dituela. Gehiago egin liteke, baina horrek eraginak baditu.

Nathalie Aïçaguerre andereak galdetu du ea Bru etxea erabilgarri denetz eta lanak bukatuak direnetz.
Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak zehaztu du barneko tindaketa lanak baizik ez direla falta.

018 - Artxiboen kudeaketa: Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroarekiko hitzarmena.

ERABAKIA:

Herriko Kontseiluari azaldu zaio Pirinioetako Lurralde Funtzio Publikoaren Kudeaketa Zentroak (CDG64) artxiboen (papera eta digitala) kudeaketa zerbitzua eskaintzen diela departamenduko lurralde erakunde guziei.

Lau zerbitzu mota eskaintzen ditu: erakundearen artxibo guztien sailkatzea (1. misioa); langileen formakuntza eta artxiboen sailkapenaren segipena (2. misioa); sailkapenaren eguneratzea (3. misioa); artxibatze elektronikaren aurretiko datuen kudeaketan laguntzea (4. misioa).

Kanboko herria Artxibo Misioaren harpidedun da 2010eko maiatzaren 31tik. Alabaina, kudeaketa zentroak harpidetzen hitzarmena egokitu duenez, erabaki berria hartu behar da baldintza berrietan harpidetzeko.

Zerbitzu horrek duen interesa kontuan izanik,

Herriko kontseiluak, aurkezlearen azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU herriak 2026ko urtarrilaren 1etik goiti Pirinio Atlantikoetako Lurraldeko Funtzio Publikoaren Kudeaketa Zentroaren Artxibo Misioan harpidetzea.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari hitzarmena eta eskuhartze eskaera izenpetzeko eranskinean agertzen den bezala.

019 - A - Langileria: giza baliabideen kudeatzaile lanpostu baten sortzea.

ERABAKIA:

Auzapezak Herriko Kontseiluari proposatu dio denbora osoko Giza Baliabide laguntzaile enplegu iraunkor baten sortzea, nagusiki GEUZarentzat giza baliabideen administrazio-kudeaketa egiteko.

Enplegua B edo C kategoriakoa da.

Enpleguen taula honela egokitua izanen da:

Enplegua: Giza Baliabideen Kudeaketa

Dago(z)kion gradua(k) 2.klaseko administrazio laguntzaile nagusia
1.klaseko administrazio laguntzaile nagusia
Lurraldeko erredaktorea
2. klaseko lurraldeko erredaktore nagusia

Kategoria hierarkikoa (k): B eta C

Aurrekontuko zenbatekoa: 1

Asteko batezbesteko lan denbora: denbora osoa

Kontratua egitekotan, kontratupeko kontratatzearen zioa: Frantziako funtzio publikoaren kode orokorreko L.332-8 2° artikulua.

Enplegua honako baldintzetan betetzen ahalko da:

- - funtzionario baten kontratatzea Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.311-1 artikuluak finkatzen duen printzipioa betez, zeinaren arabera, legezko salbuespenez aparte, departamendu, herri eta horien erakunde publiko administratiboetako enplegu zibil iraunkorrak funtzionarioek betetzen dituzte,

- baimen berezi gisa, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-8 2° artikuluaren arabera, kontratupeko langilea izan daiteke, funtzioen izaerak eta zerbitzuaren beharrek justifikatzen badute, eta ezin izan bada funtzionariorik kontratatu, mugikortasun bidez edo konkurtsoa lortu duten berrien artean,

Lan kontratuak, gehienez behin errepika daitekeen hiru urteko iraupenekoak izan behar dira, hots gehienez sei urte segidan. Sei urte horien buruan kontratua luzatzen bada, orduan erabaki arin batez mugagabea bilakatuko da.

Kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 367 eta 478 arteko indize emendatua izanen luke.

Gainera, lanpostuak dagozkion sari eta ordainak izanen lituzke, administrazio laguntzaile mailako funtzionarioentzat finkatu bezala, eta 2018ko azaroaren 26ko Herri Biltzarrak deliberatu duenaren

arabera.

Herriko Kontseiluak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU - 2026ko urtarrilaren 1etik goiti Giza Baliabideen Kudeatzaile denbora osoko enplegu iraunkor bat sortzea.

- enplegua betetzeko funtzionario bat edo kontratupeko bat hartzen ahalko dela,

- kontratupeko langile bat kontratatuko balitz, enpleguak 367 eta 478 arteko indize emendatua izanen lukeela.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, eranskinean den lan kontratua izenpetzeko, kontratatze prozedura bukatzean kontratupeko langile bat kontratatzea hautatzen badu.

ONARTU DITU Auzapezaren proposamen guztiak,

ZEHAZTU DU kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

HITZ HARTZEAK:

Amaia Beyrie andereak galdetu du segipena soilik egutegientzat den ala soldata fitxentzat.

Auzapezak erantzun dio segipena soilik soldata fitxentzat dela.

019 - B - Langileria: Eremu Publikoaren Zaintza Langile (EPZL/ASVP) enplegu baten sortzea

ERABAKIA:

Auzapezak Herriko Kontseiluari proposatu dio eremu publikoaren zaindari (EPZ/ASVP) enplegu ez iraunkor bat sortzea, denbora osokoa eremu publikoan polizia eginkizunen betetzeko. Segurtasun eta osasun publikoaren arauak zaintzeko eta prebentzioa egiteko polizia judizialaren eskumenak ditu. EPZren eginkizun nagusiak errepide kodearen, garraio kodearen, ingurumen kodearen eta segurantza kodearen urraketak ikustean eta dagozkien isunak ezartzean datza. Merkatuetan eta hatu merkatuetan merkatariak kokatzen ditu eta dagozkien sariak biltzen ditu. Haren errola da merkatarien errolda egitea, eskuragarri diren lekuak esleitzea merkatua eta hatu merkatua baldintza onetan egin daitezen. Jabari publikoaren okupatzeko sarien fakturak eta horien ordainketa eskuratzea ere egiten ditu.

Enplegua 2026ko apirilaren 1etik urriaren 4ra sortuko litzateke.

Asteko batezbesteko lanaldia 35 orenekoa izanen da.

Enplegua C kategoriakoa da.

Enplegu horren betetzeko, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-23 1° artikuluaren xedapenak beteko dira, zeinek baimentzen baitute kontratupekoak kontratatzea behin behineko jarduera emendatzeei aurre egiteko, 18 hilabeteko garai batean gehienez eta 12 hilabeteko denbora meta daitekeelarik.

Enpleguari 367ko indize gordina aplika dakioke.

Gainera, lanpostuak dagozkion sari eta ordainak izanen lituzke, lurralde teknikari laguntzaile mailako funtzionarioentzat finkatu bezala, eta 2018ko azaroaren 26ko Herriko Kontseiluak deliberatu duenaren arabera.

Herriko Kontseiluak, Auzapezaren azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU 2026ko apirilaren 1etik urriaren 4ra: denbora osoko eremu publikoaren zaindari (EPZ/ASVP) enplegu ez iraunkorra sortzea,

- enplegu horrek 367ko indize gordinari dagokion saria izanen duela.

BAIMENDU DU eranskinean den lan kontratua izenpetzeko,

ONARTU DITU Auzapezaren proposamen guztiak,

ZEHAZTU DU kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

Abstentziora jo du: Amaia Beyrie andereak

HITZ HARTZEAK:

Amaia Beyrie andereak Frantz-en garaian izan zen zailtasun bat aipatu du: postu gehigarri bat sortu zen disponibilitate bati aurre egiteko.

Auzapezak zehaztu du ez dela posturik sortu. Tom Roussel jauna Frantz Candas jaunaren agindupean zegoen, eta bien eginkizunen arteko iragazkortasuna bazegoen. Gainera, Christine Ascarain andereak puntualki esku hartzen zuen aparkatzeak kontrolatzeko, baita beste eginkizun batzuentzako ere, besteak beste udan.

Eliane Aizpuru andereak zehaztu du orain dela 10 urte inguru, bigarren postu bat sortu zela beharrari erantzuteko, existitzen zen postua osatzeko eta Christine puntualki laguntzeko.

Bukatzeko, Auzapezak adierazi du antolaketa hastapeneko egoerara itzultzen dela, hots bi udaltzain eta EPZ bat.

020 - Langileria: Gizarte Geriza Osagarria 2026ko urtarrilaren 1etik goiti.

ERABAKIA:

IKUSIRIK, Lurralde Kolektibitateen Frantziako Kode Orokorra
IKUSIRIK, Frantziako asurantza, mutualitate eta gizarte segurantza kodea,
IKUSIRIK, Frantziako Funtzio Publikoaren kode orokorra,
IKUSIRIK, 2011ko azaroaren 8ko 2011-1474 dekretuak, lurralde erakundeek eta beren egitura publikoek beren langileen gizarte geriza osagarrian diruz parte hartzeari buruzkoa,
IKUSIRIK, 2022ko apirilaren 20ko 2022-581 dekretua, gizarte geriza osagarriaren bermeei buruzkoa eta lurralde erakunde eta haien egitura publikoek geriza horren finantzazioan parte hartzeari buruzkoa

IKUSIRIK, 2021eko otsailaren 17ko 2021-175 ordenantza, funtzio publikoaren gizarte geriza osagarriari buruzkoa;
IKUSIRIK, 2012ko ekainaren 18ko 2012-025 eta 2012ko abenduaren 17ko 2012-028 erabakiak, osasun eta aurreikuspen bermeetan parte hartzea ezartzen dutenak;
IKUSIRIK, 28-03-2022-027 erabakia, enplegatzaileen gizarte gerizari buruzkoa;

honakoak kontuan izanik:

Hasieran gizarte geriza osagarria 2012an ezarri zen. Langileen gizarte geriza hobetzen du bi arlotan: osasuna eta aurreikuspena.
Frantziako lurralde kolektibitateen kode orokorreko L827-1 eta ondoko artikuluen arabera, tokiko erakundeek eta egitura publikoek beren langileen gizarte geriza osagarrian diruz parte har dezakete osasunaren eta aurreikuspenaren arloetan.

2024ko abenduaren 31a arte, lurralde erakundeen eta egitura publikoen parte hartzea beren langileen gizarte geriza osagarrian hautazkoa zen.

Aurreikuspen arriskuarentzat parte hartzea derrigorrezko bilakatu zen 2025eko urtarrilaren 1etik goiti, gaur egun hilabetean 7 € gordineko kostu batekin.
Osasun arriskuarentzat derrigorrezko bilakatuko da 2026ko urtarrilaren 1etik goiti, gaur egun hilabetean 15 € gordineko kostuarekin.

2022ko apirilaren 20ko 2022-581 dekretuaren 8. artikuluan aurreikusten den egokitze klausularen eta lurraldeko funtzio publikoan gizarte geriza osagarriaren negoziazioak eramateari buruzko uztailaren 12ko metodo-akordioaren ondorioen arabera zenbatekoak berrikusteko aukera badago.

Parte hartze hori jaso dezakete onuradunen (aktibo eta erretiratu) arteko elkartasun baldintzak betetzen dituzten osasun eta aurreikuspen arloko kontratu eta araudiek. Baldintza horien egiaztatzeko 2011ko azaroaren 8ko 2011-1474 dekretuak label bat emateko baldintzak zehazten ditu.

Gizarte geriza osagarriak bi arrisku babesten ditu:
- ✓ eritasunei eta amatasunari loturiko osasun arriskuak (osasun segurantza osagarria)
- ✓ aurreikuspen arriskua, lanerako ezintasuna, elbarritasuna edo heriotza babesten dituena (nagusiki soldataren mantentzea).

Beren langileek gizarte geriza osagarria ukaten laguntzeko, lurralde erakundeek bi aukera dituzte:
- ✓ labelizazio prozedura: Frantziako nazio mailan labela eskuratu duen kontratu edo araudi batean harpidetu diren langileak lagunduz. Labelizatutako kontratu eta araudiak honako webgunean ikus daitezke: https://www.collectivites-locales.gouv.fr/fonction-publique-territoriale/protection-sociale-complementaire.

- ✓ partehartze-hitzarmen bat hautatu: langileen behar bereziei erantzuten dien eskaintza bat hautatzeko lehiaketa bat antolatuz, eskaintzak legeriaren elkartasun baldintzak bete behar dituelarik. Hautatuko den operadorearen eskaintza hautatzea eskainiko zaio langile bakoitzari. Hitzarmena 6 urterako izenpetuko da, arrisku bakoitzeko operadore bakarrarekin.

2011ko azaroaren 8ko 2011-1474 dekretuko 23. ea 24. artikuluak segituz, erakundeak langile bakoitzari isuriko dio bere partehartzea.
Erakundearen partehartzea ezingo da langileak geriza kutxari ordaintzen diona baino gehiago izan.

Gaur egun, 2012ko abenduaren 17ko Herriko Kontseiluko 2012-027 erabakia dela-eta, herriak hilabetero bakoitzari laguntza bat ematen dio osasun eta aurreikuspen arriskuentzat, labelizazio prozeduraren baitan, eta kategoria bakoitzeko honako zenbatekoak izanik:

- **aurreikuspena**: A kategoriako langile bakoitzari 43 € hilabetean, B kategoriakoei 29 € eta C kategoriakoei 21 €.

- **osasuna:** A kategoriako langile bakoitzari 5 € hilabetean, B kategoriakoei 13 € eta C kategoriakoei 26 €.

Ondorioz, honakoa proposatzen da:

- Osasun arriskuarentzako, enplegatzailearen partehartzea 15 €z emendatzea A eta B kategorietako langile bakoitzeko 2026ko urtarrilaren 1etik goiti, araudiak betetzeko xedearekin.

- 2026 urtean zehar, osasun arriskuan lan egitea herriko langileen beharren inguruko gogoeta eraman eta dispositibo egokiena hautatzeko.

Herriko Kontseiluak, aurkezlearen azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU herriak osasun arriskuan egiten duen partehartzea emendatzeko printzipioa,

ERABAKI DU partehartze horren zenbatekoa dagoeneko A eta B kategorietako langileentzat gutxienez 15 €koa izanen dela

ZEHAZTU DU partehartzea hilabetero emanen zaiela langile titularrei, ikastunei eta lanpostu iraunkorreko kontratupekoei.

ZEHAZTU DU parte hartzea emateko langileak indarrean den kontratu labelizatu bateko harpidetza egiaztatu beharko duela.

IDATZI DITU behar diren kredituak erabakiari dagozkien ekitaldietako aurrekontuetan,

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari, erabaki honen egikaritzeko neurri ororen hartzeko.

HITZ HARTZEAK:

Nathalie Aïçaguerre andereak galdetu du ea osasun geriza osagarria urtarrilaren 1ean ezarriko denetz eta modalitateak jadanik aztertu direnetz, bereziki langileekiko komunikazioa.
Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak zehaztu du 2026ko urtarrilaren 1etik goiti osasun geriza osagarria derrigorrezkoa izanen dela, baina jadanik bazegoela geriza bat aitzinetik. Erabakiak enplegatzailearen partehartzearen gutxieneko zenbatekoa zehazten du A eta B kategorientzat: 15 € A kategoriarentzat (orain arte 5 €) eta 15 € B kategoriarentzat (orain arte 13 €), legeak finkatzen duen gutxienekoa betetzeko.
Adierazi du partehartzea emateko langileek labelizazioa duten kontratuen egiaztagiria aurkeztu behar dutela. 2026ko urtarriletik goiti hiru aukera daude:

1. *Gaur egungo sistema mantendu labelizazioa duten kontratuetan oinarrituz.*
2. *Kudeaketa Zentroaren taldeko kontratuan harpidetu.*
3. *Herriak bere talde kontratua sortzea.*

Gogoeta bat eramanen dugu aukera onena hautatzeko, sindikatuetako ordezkariekin solasean.

Auzapezak gehitu du balitekeela herriak proposatuko duen talde-kontratuak langileen aldeko iritzirik ez ukatea zeren haietako batzuek baldintza hobeagoko kontratu indibidualak baitituzte. Zehaztu du lehen helburua dela A kategoriarentzako legedia betetzea, zeren aurreikuspenaren kasuan herriak legea baino harago joaten baita.

021 - Programa Baimen eta Ordainketa Kredituen (PB/OK - AP/CP) eguneratzea.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapez ordea, honakoa azaldu du:

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L2311-3 artikuluaren arabera, aurrekontu zuzkiduretako inbertsio gastutzat har daitezke Programa Baimenak eta Ordainketa Kredituak (PB/OK).

M57 kontularitza nomenklaturaren arabera, programa baimenen prozedurak (PB) onar daitezke inbertsio gastuentzat.

Programa baimenak (PB) dira inbertsioen finantzatzeko eginen diren gastuen muga gorena. Indarrean diraute, iraupen mugarik gabe, indargabetu artean eta aldatuak izan daitezke.

PB bakoitzari dagozkion Ordainketa Kredituak kontularitza ekitaldian zehar banatuko dira. Ordainketa Kredituak (OK) dira PB baten baitan eta urtean zehar egiten diren gastuen estaltzeko muga gorena.

2025eko Hasierako Aurrekontuan bozkatu PB/OKen taula kontuan izanik, eta egun egin den PB programen aitzinamenduak eta 2025eko ekitaldian egin gauzatzeak kontuan izanik,

Honakoa proposatu du:

- **2022-001 zenbakidun PB/OK "Haurtzain" 37 125,50 €z murriztea, hots PBa 209 156,89 € ra egokitzea 246 282,39 €ren ordez.**
  OKak honela egokituko dira:

	CP
2025	-52 725.50
2026	15 600.00
2027	0.00
Total	-37 125.50

- **2022-006 zenbakidun PBa "eskoletako karrika" 19 602,69 €z murriztea, hots PBa 59 661,24 €ra egokitzea 79 263,93 €ren ordez.**
  OKak honela egokituko dira:

	CP
2025	-19 602.69
2026	0.00
2027	0.00
Total	-19 602.69

- **2023-008 zenbakidun PBa "zelai sintetikoa" 258 170,67 €z emendatzea, hots PBa 1 539 742,67 €ra egokitzea 1 281 572,00 €ren ordez.**
  OKak honela egokituko dira:

	CP
2025	-613 744,00
2026	871 914,67
2027	
Total	258 170,67

(Oharra: 2026an 2025eko Hasierako Aurrekontuan, OKa 116 256,00 €koa zen).

- **2023-009 zenbakidun PBa "ezker-pareta" 232 596,87 €z emendatzea, hots PBa 2 212 402,70 €ra egokitzea 1 979 805,83 eren ordez.**
  OKak honela egokituko dira:

	CP
2025	-186 177.90
2026	418 774.77
2027	0.00
Total	232 596.87

(Oharra: 2026an 2025eko Hasierako Aurrekontuan OKa 1 227 626, 83 €koa zen)

- **"Arnagako laranjategia eta zalditegia" 2024-011 zenbakidun PBaren OKak egokitzea.**

	CP
2025	-139 389.36
2026	139 389.36
2027	0.00
Total	0.00

(Oharra: 2026an 2025eko Hasierako Aurrekontuan OKa 2 902 041,45 €koa zen)

- **2024-013 PBa "Pilotaren Egoitza" 12 000,00 €z emendatzea, hots PBa 546 546,22 €ra egokitzea 534 546,22 €ren ordez.**
  OKak honela egokituko dira:

	CP
2025	12 000.00
2026	0.00
2027	0.00
Total	12 000.00

- **2024-014 zenbakidun PBa "Petanka zelaiaren estaltzea" 8 000,00 €z emendatzea, hots PBa 156 000,00 €ra egokitzea 148 000,00 €ren ordez.**
  OKak honela egokituko dira:

	CP
2025	8 000.00
2026	0.00
2027	0.00
Total	8 000.00

- **2024-016 PBaren OKak egokitzea "Herriko lau etxebizitzaren Energia berriztatzea"**

	CP
2025	-36 000,00
2026	36 000,00
2027	
Total	0,00

(Oharra: 2026an 2025eko Hasierako Aurrekontuan, OKa 145 000,00 €koa zen).

- **"Bizikleta Plana" 2024-018 PBaren OKak egokitzea.**

	CP
2025	-17 590.80
2026	17 590.80
2027	0.00
Total	0.00

(Oharra: 2026an 2025eko Hasierako Aurrekontuan, OKa 37 409,20 €koa zen).

- **2025-019 zenbakidun PBa "Michel Labeguerie Futbol Zelaiaren argiztatzea" sortzea, 180 000 €rentzat, eta honako OKak idaztea:**

	CP
2025	30 000.00
2026	150 000.00
2027	0.00
Total	180 000.00

- **2025-020 zenbakidun PBa sortzea "Pedro Halty aldagelen eraberritzea" sortzea 70 000 €rentzat, eta honako OKak idaztea:**

	CP
2025	10 000.00
2026	60 000.00
2027	0.00
Total	70 000.00

Herriko Kontseiluari proposatu zaio 4 PBren emendatzea, 2 PBren murriztea, 2 PBren sortzea onartzea eta ordainketa kredituen banaketa berria ere onartzea eranskinean den taularen arabera.

Herriko Kontseiluak, aurkezlearen azalpenak entzunik eta deliberaturik, aho batez:

ONARTU DU 4 PB ren emendatzea, 2 PBren murriztea, 2 PBren sortzea eta ordainketa kredituen banaketa berria, eranskinean den taularen arabera.

AGINDU DIO Auzapezari honako erabakiak egikaritzeko behar diren izapide guzien egitea.

Abstentziora jo dute: Peio Etxeleku (ahalordearekin), Jean-François Lacosta, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy.

HITZ HARTZEAK:

Philippe Bacardatz jaunak adierazi du lanen batzordean PB/OK ia guztiak aurkeztu zirela, baina bi ez direla oraindik aipatu: Pedro Haltyko argiztatzea eta aldageletako lanak. Galdetu du ea arrazoirik ba ote den horien aipatu ez izateko.

Eliane Aizpuru andereak zehaztu du ekintza handienak baizik ez direla aurkeztu lanen batzordean, ez baitago beharmendurik ekintza guztiak aurkezteko. Gai nagusitzat jo ditu zelai sintetikoa eta ezker-pareta. Aldiz, futbol zelaiaren argiztatzea eta aldagelak ez dira hain garrantzitsutzat hartzen, baina finantza batzordean aurkeztu ziren. Deitoratu du zenbait kide ez baitira batzorde hartan izan.

Auzapezak azaldu du argiztatze eta aldagelen eraberritze lanen txertatzea zaila izan dela. Helburu nagusia da Kanboko Izarra taldeko gazteek entrenatu ahal izatea Labeguerie zelaia erabiliz.
Zehaztu du aldagelak Kanboko Izarreko gazteek eta San Mixel kolegioko ikasleek erabiltzen dituztela. Aldagelen egoera ikusirik, beharrezkoa zen eraberritze lanak egitea, eta lan xumeez aparte, herriak elkartearekin epe luzeko alokatze kontratua egin behar du.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du 180 000 €ko zenbatekoa soilik den argiteria zutoinen ordezkatzeko ala argiteria osoa hartzen duen.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak zehaztu du argiteria berria egiteko dela.

Didier Irastorza jaunak gehitu du Zabalki guneari dagozkiola lan horiek.

Philippe Bacardatz jaunak Pedro Haltyko aldagelentzako 70 000 €ei buruz galdetu du, ea lan arinak direnetz, adibidez margotze lanak.

Auzapezak erantzun dio hastapenean zerbitzuek 140 000 € aurreikusi zutela, baina balitekeela kostua hori baino handiagoa izatea. Lan horietan sartuko lirateke elektrizitatearen, aldagelen, egoitzaren, zoruaren eta bulegoaren eraberritzea, soilik futbolaren erabilpenerako. Baina, 70 000 €ko partidari dagokionez, elkartearen ekarpenaren arabera egokitu beharko da. Helburua da Kanboko Izarreko gazteek erabiltzen dituzten instalazioak eraberritu ahal izatea, segurtasun eta osasun baldintza onargarriak bermatzeko.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du futbol zelaiarentzako aurreikusten den argiteriak gauazko partida homologatuak egiteko balio dezakeen edo soilik entrenamenduetarako.

Didier Irastorza jaunak zehaztu du Pedro Haltyko argiak LED argiekin ordeztuko direla zeren gaur egungoak usu matxuratzen baitira eta eguraldi txarra denean zaila da eskuhartzea.

Auzapezak adierazi du herriak Pedro Haltyko instalazioen mantenua bere gain hartu duela eta argiteria mantentzeko fakturak garestiak direla. Zehaztu du LED argiak ezartzeak 22 000 € inguru balioko duela.

Eliane Aizpuru andereak programa baimenak hiru kategoriatan banatu ditu: zenbatekoa apaltzen dutenak, zenbatekoa emendatzen dutenak eta sortu berriak, zeren aurrekontuen egituraketan eta segipenean garrantzia baitu.

Auzapezak adierazi du zelai sintetikoaren lanen aspektu teknikoak azaldu behar direla kostuen emendatzea justifikatzeko. Gauza hauek jadanik azaldu zaizkie futboleko eta errugbiko arduradunei, Lafitte Paysage enpresarekin. Zehaztu du ez duela balioa gai horren kronologia osoa berriz azaltzea, baina soilik egoera berrira eraman gaituzten azken elementuak.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak azaldu du zelai sintetikoaren obrak, futbola eta errugbiarentzako dena, hainbat zailtasun tekniko dituela.

- *Hastapeneko obra kudeatzailea ez da aski aditua.*
- *Zelaien neurriak ez datoz bat federazioen araudiekin; zelaien lautasuna doitu eta onetsi behar da Labosport kontrolatzaile teknikoarekin, eta horrek lehen gainkostua eragiten du.*
- *Lur mugitzeek agerian eman dute erdiguneko zorua ez dela aski sendoa (10 MPa baino gutxiago, 30 MPa behar direnean). Obra kudeatzaileak ez ditu kontuan hartzen herriak egin zituen lur zoruaren ikerketak.*
- *Erabaki da obra agintaririk ez kontratatzea eta zuzeneko harremana egitea enpresekin. Egitura berri bat ezarri da: 40 cm harri, geo-ehun geruza bat eta 0-300 mm-ko harri xehea. Labosport enpresak balioztatu du 50 MPA-tik gorako sendotasuna.*
- *Lan horien berantzeak 257 000 €ko gain-kostua eragin dute zoruarentzat, aitzinetik aurreikusi ez zirenak.*
- *Zoru sintetikoaren pausatzea martxo eta apirila artean eginen da, 8 astez, behar bezalako hezetasuna izan dadin amortizazio geruza osatuko duten hondarra eta artelazkia ezartzeko.*

Hauek dira kostuen emendatzearen eta obraren berantaren arrazoiak. Kirol elkarteei azaldu zaizkie egutegiaren aldaketa uler dezaten.

Peio Etxeleku jaunak galdetu du obra agintariaren erantzukizuna zertan den, bereziki segurantzarekin zerbait egin daitekeenez.

Auzapezak erantzun dio afera lantzen ari direla: abokatu bati txostena aztertzea eskatu zaio. Balizko erantzukizunak anitz izan daitezke. Zehaztu du azterketa osoa eginen dela obra bukatzean, hurrengo urratsak errazago zehazteko eta balizko errekurtsoak aztertzeko.

Peio Etxeleku jaunak erran du egoeraren larritasuna ulertzen duela, baina azpimarratu du gainkostuak herriaren gain izaten ahal direla obra kudeatzailearen erantzukizuna ez bada frogatzen.

Auzapezak oroitarazi du historikoki zelai sintetikoa errugbiaren bigarren zelaia dela, beste erabilpenik ere baduela, baina lehentasunez errugbiarena dela. Zehaztu du futbolak ere zelai horren beharra baduela eta taldeek zelaiaren erabilpena antizipatu dutela, pentsatzen baitzuten goizago hasten ahalko zirela. Zaila izan da erabaki baten hartzea. Lanak hasiak ziren zoruaren kalitatearen arazoa agertu denean, lehen zoru ikerketek ez baitzuten halakorik eman.,

Peio Etxeleku jaunak ulertu du zoru ikerketak egin zirela, baina horien ondorioak ez zirela behar bezala kontuan hartu obraren segipenean.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak zehaztu du zoruaren ikerketak, zeina obra kudeatzaileak galdegin baitzuen eta obra agintariak onetsi, arazoak identifikatu zituela, besteak beste argiteria zutoinen kokapena eta bereziki zelaiaren erdigunea. Eta erdigunea da, hain zuzen, behar bezala kontuan hartu ez dena hastapeneko egitura gomendioetan.

Peio Etxeleku jaunak erantzukizunen galdera berriz pausatu du. Azpimarratu du nahiz eta abokatu bat kontratatu txostena aztertzeko, lanak abiatu izana arerioari bere interesak defendatzeko aukerarik utzi ez izana herriarentzako arrisku juridikoa ekar lezakeela.
Auzapezak zehaztu du arriskua are handiagoa dela zeren orain herria baita obra kudeatzaile eta ez baita beste obra kudeatzailerik izendatu. Halere, aitzinatzeko beharra adierazi du, erran denarekin adostasuna adieraziz.

Peio Etxeleku jaunak arerioari "opari bat egiteko" arriskua aipatu du, zehazturik proiektuak 160 000 €ko gainkostua eragin dezakeela.

Auzapezak erantzun dio ez dela inolako oparirik egiten.
Erabiltzaileen egoera oroitarazi du eta hertsapenak-hertsapen, erabaki du lanak ahal bezainbat aitzinatzea zelaia lehenbailehen erabilgarri izan dadin.

Peio Etxeleku jaunak iradoki du menturaz bazegoela urgentziazko ekintza juridikoa egiteko aukera.

Philippe Bacardatz jauna harritua da obra kudeatzaileari aurpegiratzen baitzaio zelaiaren dimentsioen arazoa. Oroitarazi du apirileko Herriko Kontseiluaren bilkuran zelaien homologazio arazoa azaldu zuela eta erantzuna izan zela urtero salbuespenezko baimena eskatuko zela. Horrek adierazten du dimentsioen arazoa aitzinetik jakina zela.

Auzapezak zehaztu du proiektuaren hasieran, zelaiak errugbiarentzako izan behar zuela. Didier Irastorza jaunaren ekimenez errugbia eta futbolarentzako erabilera bikoitza aurreikustea erabaki zen baina egutegiaren lehentasuna errugbiari emanez. Oroitarazi du futbolerako dimentsioek hertsapen gehiago ezartzen dutela eta erabakia izan dela errugbiarentzako federazio kategorientzako homologatzea eta futbolarentzako distritu mailetarako.

Philippe Bacardatz jaunak azpimarratu du dimentsioen gaia nekez aurpegiratzen ahal zaiola obra kudeatzaileari, zeren herriak salbuespenezko baimenak baitzituen gogoan.

Auzapezak adierazi du dimentsioen gaia ez dela lehentasuna, garrantzitsuena zorua da. Zehaztu du zoruaren arazo hori gabe dimentsioak eta futbola distritu mailan aritzea ez zirela aipatuko ere.

Philippe Bacardatz jaunak 2025 eta 2026ko OKei buruzko galdera egin du, ohartu baita 2025ean 2 707 000 € gauzatu direla eta 6 948 000 € aurreikusten direla 2026rako. Azpimarratu du kalkulu horren arabera, datorren urterako aurreikusten den inbertsioa aurtengoaren bikoitza litzatekeela. Horren baieztatzea galdegin du.

Auzapezak azaldu du programa baimena zenbateko orokorra dela, baina ordainketa kredituak aurrekontuan egiazki egin den gastua adierazten dutela.

Amaia Beyrie andereak zehaztu du 2026rako aurreikusten diren gainkostuak ez direla prezioen igoerari lotuak, baizik eta aurreikusi eta ondorioz antizipatu ez ziren lanei dagozkiela. Horren baieztatzea eskatu du.

Eliane Aizpuru andereak adierazi du gehienetan merkatuak finkatuak eta izenpetuak direla. Indizearen araberako doikuntza bat gerta daiteke, baina alde txikia izan ohi da.

Peio Etxeleku jaunak zehaztu du merkatu publikoek indizeak segitzen dituztela, Frantziako INSEE institutuak eta estatuak berak onetsiak direnak, eta gorako ala beheranzko joaera

izan dezaketela. Oroitarazi du merkatuen eguneratzea legezko beharmendua dela, baina bariazio horiek ez dutela gainkostuen zati handiena azaltzen.

Amaia Beyrie andereak adierazi du finantzazio eskaera batzuk akats batzuen ondorio direla edo aitzinetik ez aski ongi landutako txostenen ondorio direla, etorkizuneko behar guztiak kontuan ez hartzeagatik, eta horrek gero finantzazio beharren emendatzea dakarrela.

Eliane Aizpuru andereak azpimarratu du kasu batzuetan proiektua molda daitekeela.

Auzapezak adierazi du lan metodoa aldatu dela, aurrekontuan txertatutako balorazio puntual batetik inbertsioen urte anitzeko programazio batera, eta ekintza batzuen kasuan 10 urte arte. M57 aurrekontuen nomenklaturak hastapeneko aurreikuspenak eta proiektuak denboran izan duen bilakaera konparatzeko aukera ematen du.
Oroitarazi du merkatuak baldintzazko edo hautazko zatiak ukan ditzaketela, eta horien gauzatzeak proiektuaren izarian eragina duela.
Zelai sintetikoei dagokienez, gainkostua aurreikusi ez ziren hertsapen teknikoek eragin gainbalio baten ondorioa dira, bereziki zoruaren kalitatea eta sendotasuna. Ez dira hastapeneko ebaluazioaren akats baten ondorioa. 2025ean zelai sintetikoarentzako programa baimena egin zenean, 1 281 000 €an baloratu zen, baina zailtasunak ezin ziren aurreikusi.

Philippe Bacardatz jaunak oroitarazi du zelai sintetikoaren lehen ebaluazioa 2 000 000 €koa zela eta gerora beherago baloratu zela, 1 200 00 €an, eta gero berriz goiti 1 500 000 €an. Azpimarratu du zenbatekoen bilakaerak ezin zaizkiola soilik futbola proiektuan sartzeari egotzi.

Auzapezak zehaztu du ez diola kostuaren emendatzea futbolari egotzi. Azaldu du zoru kalitateari loturiko zailtasunengatik proiektua egokitzea erabaki zela hastapenetik errugbia eta futbolarentzako balio zezakeen proiektu baten alde.

Amaia Beyrie andereak bizikleta-planaz galdetu du, 45 000 € erabili direla, eta ea zenbateko hori lurrean egin margoketei dagokionez.

Vincent Goytino jaunak zehaztu du bizikleta-planaren 45 000 €ek ez dutela soilik margoketa ordaintzen, baina material erosketak ere sartzen direla, seinaletika, bizikletak biltzeko instalazioak eta planari loturiko komunikazio ekintzak. Aurrekontu horrekin bizikleta-plan osoa diruztatu da.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak galdegin du zeri dagozkion 2026ko 55 000 €ak.

Eliane Aizpuru andereak erantzun du zenbateko hori oraingoz aurrekontuan dagoela eta 2026ko hasierako aurrekontuan zehaztuko dela ea ekintza zehatzak egokituko zaizkion, jakinez inbertsio plana erregularki berrikusten dela.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak, oraingoz geldirik dagoen bizikleta-plana aipatuz, zertan den galdetu du eta beste herri batzuek bideratu ekimenez galdetu du, besteak beste Uztaritzek egin bizikleta-erreiak.

Vincent Goytino jaunak adierazi du Uztaritzen soilik bizikleta pista bat egin dela Guadalupetik, baina beste leku guzietan seinaletika besterik ez dela. Kanbo eta Errobi eremuko beste herriak lotzeko bizikleta-planari dagokionez, proiektu hori momentuz geldirik dago. Ikerketak egin dira eta dokumentuak marraztu, baina horien gauzatzeko borondate politikoa behar da.

Aipatu du Departamenduak ere baduela plan bat, hasieran 2025 bukaerarako aurreikusia, Baionatik heldu den zirga-bidea Kanboraino luzatzeko eta gero Luhuso eta Bidarrairaino. Gaur gaurkoz, adierazpenez aparte, deus konkreturik ez da egin ez herrien mailan ezta departamendu mailan ere.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak azpimarratu du Kanbo ez dela sustatzaile izan herrian bizikleta-plana ezartzeko.

Vincent Goytino jauna ez da ados Kanbon bizikleta-planarentzat deus ez dela egin errateko. Oroitarazi du 45 000 € inbertitu direla, bereziki seinaletikarentzat, eta hori dela, bideen zabalera kontuan izanik, egin zitekeen gauzarik egokiena. Ikerketa bulego berezitu batek egin ikerketek baieztatu dute ezin zela bizikleta-erreirik egin karrika batzuetan. Azpimarratu du seinaletikak txirrindularien segurtasuna hobetzen duela, eta errepidean duten zilegitasuna, eta uste du egin dena lehen urratsa dela bizikletazko zirkulazioa sustatzeko bidean.

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du zergatik ez zaien galdeketa egiten Kanboarrei jakiteko zinez seguruago sentitzen diren bizikleta-planaren inbertsioen ondotik. Azpimarratu du, seinaletika eginik ere, txirrindulari batzuk ez direla seguru sentitzen, bereziki margo-seinaleak errepide erdian daudenean.

Vincent Goytino jaunak zehaztu du segurtasunaren ebaluazioa eguneroko bizikleta zirkulazioari dagokiola, adibidez ogia erostera joateko edo bankura joateko, baina ez taldean edo errepidean ibiltzen direnentzat. Uste du seinaletikak auto-gidariek txirrindularientzat duten errespetua areagotzen duela eta segurtasun sentsazioa handitzen duela. Baina aitortzen du interesgarri litzatekeela biztanleen iritzia jasotzea.

Argitxu Hiriart-Urruty anderea ez dago ados aipatu den segurtasun sentsazioarekin eta erran du bera dela horren lekuko ez baita bizikleta-planaren antolamenduekin babestua sentitzen. Aipatu du bertako merkatari bat Termetako maldan erori zela auto bat hurbilegi pasatu baitzaio. Horrek erakusten du lurreko markek ez dutela derrigorrez segurtasun gehiago ekartzen.

022 - Aurrekontu nagusia: 1. erabaki aldatzailea.

ERABAKIA:

Kontuan izanik, 2025ko kontularitza ekitaldiaren aurrekontu nagusiko funtzionamendu eta inbertsio ataletako artikulu batzuetan bozkatu diren kredituak txikiegiak direla, Herriko Kontseiluari proposatu zaio honako 1. erabaki aldatzailea onartzea, eranskinean diren taulen arabera:

1 - FUNTZIONAMENDU SARTZEAK

Kapitulua	kontularitza artikulua		DM
013	6419	Langileria lansarien itzultzea (eguneko indemnizazioak)	35 000,00
	6479	Beste karga sozialen itzultzea (bazkari-txekeak)	1 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 013. kapitulua	**36 000,00**

70	**7022**	Egur mozketak	900,00
	70311	Hilerrietako kontzesioak	7 000,00
	70383	Aparkatze zergak	26 158,00
	7062	Kultur izaerako zerbitzuen zerga bereziak	-75 000,00
	7078	Bestelako salgaiak (museoko saltokia besteak beste)	-50 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 70. kapitulua	**-90 942,00**
73	**73211**	Euskal Elkargoaren konpentsazio ekarpena	2,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 73. kapitulua	**2,00**
731	**73111**	Tokiko zerga zuzenak	8 398,00
	73118	Bestelako ekarpen zuzenak	3 675,00
	73123	Oinordetza eskubideen eta lur funtsen iragarki zergaren gaineko zerga gehigarria	15 000,00
	73141	Bukaerako elektrizitate kontsumoaren gaineko zerga	2 000,00
	7318	Bestelakoak (autokarabana gunean aparkatzea besteak beste)	-26 158,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 731. kapitulua	**2 915,00**
74	**74111**	Herrien Zuzkidura-Forfeta (DGF)	-5 028,00
	741121	Herrien Landa-eremuko Elkartasun zuzkidura (DSR)	21 005,00
	742	Tokiko hautetsientzako zuzkidurak	163,00
	744	FCTVA (N-2ko funtzionamendu gastuen gainekoa)	6,06
	74718	Frantses estatua / Beste	2 500,00
	7473	Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren diru-laguntzak	-384,00
	74758	Beste talde batuetan parte hartzea (EEP, Mugikortasunen Sindikatua)	-4 000,00
	7478211	Elbarrituen irteera funtsak	1 700,00
	747888	Bestelako erakundeen parte hartzea	-900,00
	74833	Frantses estatua – Lur funtsen zergaren konpentsazioak	2 058,00
	7485	Agiri segurtatuentzako zuzkidura (pasaporteak)	-5 500,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 74. kapitulua	**11 620,06**
75	**752**	Alokairua	7 000,00
	757351	Funtzionamendu diru-laguntzak	15 000,00
	75888	Ez ohiko kudeaketa etekinak/ekintzak	9 299,94
		DM Ataleko zenbateko orokorra 75. kapitulua	**31 299,94**
76	**7688**	Bestelako finantza etekinak	2 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 76. kapitulua	**2 000,00**
77	**773**	Aitzineko ekitaldietatik deuseztatutako mandatuak	6 200,00
	773	Higiezinen salmenten etekinak	2 240,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 77. kapitulua	**8 440,00**
		DM OROTARA	**1 335,00**

2 - FUNTZIONAMENDU GASTUAK

Kapitulua	kontularitza artikulua	Azalpena	DM
011	**60611**	Ura, saneamendua	-36 240,00
	60628-60631-6063	Mantenu hornikuntzak CTM	-15 000,00
	6064	Administrazio eta informatika gaiak	-5 000,00
	6068	Bestelako materialak	15 000,00
	6078	Bestelako erosgaiak (Arnagako saltokia)	-30 000,00
	61558	Bestelako ondasun higigarrien mantenua	-10 000,00
	6156	Mantenua	10 000,00
	6168	Bestelako segurantza sariak	8 000,00
	617	Ikerketak eta bilaketak	22 000,00
	6227	Egintza eta auzibide gastuak	-5 000,00
	6241	Ondasunen garraioa	1 000,00
	6247	Garraio kolektiboak (eskola garraioa barne)	-5 000,00
	6262	Telekomunikazio gastuak	-4 000,00
	627	Bankuko zerbitzuak eta antzekoak	5 000,00
	6282	Zaindari gastuak	3 300,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 011. kapitulua	**-45 940,00**
014	**739116**	SRU legearen 55. artikuluko diru-hartzeak	9 855,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 014. kapitulua	**9 855,00**
65	**65312**	Hautetsien misio-gastuak	2 000,00
	657358	Emandako diru-laguntzak (Txakurrak + Biltzar)	80,00
	65818	Kontzesio, brebeta eta abarrentzako zerga bereziak.	25 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 65. kapitulua	**27 080,00**
66	**66112**	Berantago ordaintzeko diren interesak	8 100,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 66. kapitulua	**8 100,00**
042	**6811**	Gauzatzeen diferentzia (+) inbertsioetara transferituak	2 240,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 042. kapitulua	**2 240,00**
		DM OROTARA	**1 335,00**

3 - INBERTSIO SARTZEAK

Kapitulua	kontularitza artikulua	Azalpena	DM
10	**10226**	Antolamendu zerga	-140 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 10. kapitulua	**-140 000,00**
13	**1311**	Frantses estatua eta herrialde hartako egiturak	-523 217,00
	1321	DRAC	800,00
	1323	Pirinio Atlantikoetako Departamendua	341 190,00
	13251	EHE	136 251,00
	13361	DETR	250 108,00
	13362	DSIL	173 109,00
	131141	Bestelako erakundeen parte hartzea	-210 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 13. kapitulua	**168 241,00**

16	**1641**	Maileguak	-870 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 16. kapitulua	**-870 000,00**
040	**281848**	Higiezinen gauzatzeen diferentzia	2 240,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 040. kapitulua	**2 240,00**
		DM OROTARA	**-839 519,00**

4 - INBERTSIO GASTUAK

Kapitulua	kontularitza artikulua	Azalpena	DM
16	**165**	Emandako gordailuak	1 050,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 16. kapitulua	**1 050,00**
20	**2031**	Ikerketa gastuak	-24 000,00
	2033	Txertatze gastuak	1 050,00
	2051	Kontzesioak eta antzeko eskubideak	11 640,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 20. kapitulua	**-11 310,00**
204	**2041582**	Pertsona pribatuentzako diru-laguntzak - eraikinak eta instalazioak	-72 328,19
		DM Ataleko zenbateko orokorra 204. kapitulua	**-72 328,19**
21	**2117**	Lur-sailen eskuratzeak	3 001,00
	21328	Bestelako eraikin pribatuak	-18 000,00
	21351	Instalazio orokorrak, antolamenduak,	6 417,95
	21351	Jendarmeriako lanak	12 000,00
	21351	Petankaren estaltzea	8 000,00
	21352	Instalazio orokorrak, antolamenduak,	25 000,00
	2158	Bideo-babesa	-23 130,00
	2138	Informatika materiala	12 000,00
	2188	Orotariko materialak	-39 317,70
		DM Ataleko zenbateko orokorra 21. kapitulua	**-14 028,75**
23	**2312**	Terrenoen antolatzea	520 000,00
	2313	Eraikuntzak	-1 133 744,00
			-186 177,90
			-139 389,36
			12 000,00
			-36 000,00
			10 000,00
	2315	Bideak	-17 590,80
			30 000,00
			200 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 23. kapitulua	**-740 902,06**
27	**27638**	Bestelako egitura publikoak (ToLFEP)	-2 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 27. kapitulua	**-2 000,00**
		DM OROTARA	**-839 519,00**

Herriko Kontseiluak, Aizpuru anderearen azalpenak entzunik eta deliberaturik, bozkatu duten guziak alde:

BAIMENDU DU gorago azaldua den erabaki aldatzailea.

Abstentziora jo dute: Peio Etxeleku (ahalordearekin), Jean-François Lacosta, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy.

HITZ HARTZEAK:

Philippe Bacardatz jaunak galdetu du 7318 lerroko 26 000 €ko beherakada autokarabanetako apaltze batetik heldu den ala beste arrazoirik ba ote den.

Eliane Aizpuru andereak azaldu du kontularitzako transferentzia dela: historikoki 7318 kontuan sartzen ziren zenbatekoak urte erdian 70383 kontura pasatu dira eta horrek eragin du aldea. 31 842 €ak ere lerroz aldatu dira, 73 kontutik 70 kontura.

Peio Etxeleku jaunak galdetu du "bestelako egituren partehartzea" ea kontu generikoa den diru-laguntzen iturriak ezagutzen ez direnean erabiltzeko.

Eliane Aizpuru andereak erantzun dio urte hasieran "denetarik" sartzeko kontua dela eta gero zenbatekoak behar den lekura aldatzen direla: +347 441 € ezker-paretarentzat, +800 € DRACetik, -180 000 €zelaiarentzat.

Peio Etxeleku jaunak egiaztatzen du aurreikusi zen diru-laguntzarik ez dela galdu eta Auzapezak baieztatu dio, zehazturik 168 000 €ko inbertsioetarako diru-laguntza konpentsatua dela antolamendu zerga batekin (-140 000 €) eta modernizazio zuzkiduraren 840 000 €ko zenbateko orokorra estaltzeko 870 000 €ko mailegu berriz-hartzea egin dela. Amaia Beyrie andereak 204. lerroaz galdetu du "zuzenbide pribatuko pertsonak" zeinak 72 000 €ko beherapena agertzen baitu inbertsio gastuetan.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak zehaztu du beherapena PB/OKen apaltzeari zor zaiola bi ekintzentzat: Haurtzain (-52 725,50 €) eta eskoletako karrika (- 19 602,69 €).

023 Inbertsio gastuen kredituak aurretiaz irekitzea.

ERABAKIA:

Aizpuru andereak, auzapez ordea, honako azaldu du:

2025 kontu ekitaldian herriak hainbat inbertsio programa abiatu ditu, eta horietatik eratorriak dira 2026 hasierako kontratu eta finantza engaiamenduak. Alta, 2026 hastapeneko finantza engaiamenduak ezin dira gauzatu, kontularitza ikuspegitik, inbertsio kredituak 2026ko hasierako aurrekontuan ireki ez diren bitartean.

Baldintza horietan, eta Frantziako LKKOko L.1612-1 artikuluaren arabera, lurralde erakunde baten aurrekontua dagokion urteko urtarrilaren 1a baino lehen onartu ez denean lurralde erakunde horretako aginteak, organo erabakitzaileak baimendurik eta aurrekontua onartu arte, honakoak egin ditzake:

- funtzionamendu ataleko diru sarrerak onartzea eta gastuak egitea, likidatzea edo agintzea aitzineko urteko aurrekontuaren mugak gainditu gabe.

- aurrekontuaren bozka baino lehen epemugara heltzen zen zorraren kapitala ordaintzeko gastuak agintzea.

- inbertsio gastuak gauzatzea, likidatzea eta agintzea, aitzineko urtean ireki ziren kredituen laurdena gainditu gabe, zorraren ordaintzeko kredituak salbuetsita.

Bestalde, LKKOko L. 5217-10-9 artikuluak honakoa dio: «Inbertsio atalak edo funtzionamendu atalak programa baimenak eta ordainketa kredituak (PB/OK) dituztenean, edo engaiamendu baimenak eta ordainketa kredituak (EB/OK) agintariak, aurrekontuan onartu artean edo aurrekontua adosten ez bada ordaindu arte, aitzineko ekitaldietan ireki diren baimenetako inbertsio eta funtzionamendu gastuak likidatu eta agindu ditzake, kapitulu bakoitzeko ordainketa kredituen mugak gainditu gabe, hots aitzineko urtean ireki ziren baimenen heren bateraino. Kreditu horiek aurrekontua onartzean edo ordaintzean txertatuko dira. Kontulariak baldintza horietan jaulki diren aginduak ordaindu ditzake. ».

Honako bi eranskinetan oroitarazten da:

Programa baimenetatik kanpoko inbertsio gastuei dagokienez (1. eranskina):

- Aurrekontuko kapitulu eta artikulu bakoitzeko, Aurrekontu Nagusiaren 2025eko Aurrekontuan aurreikusi diren inbertsio gastuen zenbatekoa eta eskuragarri den inbertsio aurrekontuko zatia (%25), 2026ko hasierako aurrekontua bozkatu arte.

Programa Baimenak eta Ordainketa Kredituak (2. eranskina).

- Aurrekontuko kapitulu eta artikulu bakoitzeko, 2025erako aurreikusi diren ordainketa kredituen zenbatekoak eta eskuragarri diren kredituen herena, 2026ko Hasierako aurrekontua bozkatu arte

Aizpuru anderearen azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herriko Kontseiluak adierazi diren boz guztiak alde:

ONARTU DU 2025eko aurrekontu nagusiko hasierako aurrekontuaren bozka egin bitartean, 2026ko kontu ekitaldiko inbertsio gastuen kredituak aurretiaz irekitzea.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari agiri oro izenpetzeko eta honako erabakiaren egikaritzeko administrazio eta finantza izapide guztien egiteko.

Abstentziora jo dute: Peio Etxeleku (ahalordearekin), Jean-François Lacosta, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq, Xabier Heguy.

024 - Hilobi eta kolunbarioen aurrekontu erantsia: 2. erabaki aldatzailea.

ERABAKIA:

Kontuan izanik hilobien aurrekontu erantsitik gauzatu diren funtzionamendu sartzeak 2025eko hasierako aurrekontuan aurreikusiak baino handiagoak direla, funtzionamendu gastu berriak baimentzen dituzte. Ondorioz, AIZPURU andereak, finantzetarako auzapez ordea, Herriko Kontseiluari proposatu dio honako 2. erabaki aldatzailea onartzea.

1 - FUNTZIONAMENDU SARTZEAK

Kapitulua	kontularitza artikulua		DM
70	701	Mozkin bukatu eta erdibikoen salmenta	11 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 70. kapitulua	**11 000,00**
		DM OROTARA	**11 000,00**

2 - FUNTZIONAMENDU GASTUAK

Kapitulua	kontularitza artikulua	Azalpena	DM
011	6052	Material erosketa, ekipamenduak eta lanak	11 000,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 011. kapitulua	**11 000,00**
67	673	Urteko deuseztatuak (aitzineko kontu ekitaldietakoak)	- 2 992,00
	678	Beste ez ohiko kargak	2 992,00
		DM Ataleko zenbateko orokorra 67. kapitulua	**0,00**
		DM OROTARA	**11 000,00**

Aizpuru anderearen azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herriko Kontseiluak aho batez:

ONARTU DU gorago azaldua den erabaki aldatzailea.

025 - Pirinio Atlantikoetako SPL: 2024ko urteko txostenaren aurkezpena.

ERABAKIA:

Auzapezak biltzarkideei jakinarazi die Pirinio Atlantikoetako SPL-eko Administrazio kontseiluak, 2025eko agorrilaren 28an, bere 2024ko jarduera txostena onetsi duela.

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.1524-5 artikuluaren arabera "lurralde erakundeetako organo erabakitzaileek edo haien SEM akziodunen taldeetako administrazio kontseiluko ordezkariek aurkezten dieten idatzizko txostenaz erabaki behar dute, gutxienez urtean behin"..

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herriko Kontseiluak aho batez:

AINTZAT HARTU DU, Pirinio Atlantikoetako SPL-ek aurkeztu 2024ko jarduera txostena.

026 - L'Aiglon zinema: 2024ko ustiapen txostenaren aurkezpena.

ERABAKIA:

Barbier jaunak biltzarkideei jakinarazi die 2022ko uztailaren 11ko erabakiz Herriko Kontseiluak onartu zuela zinema zerbitzu publikoko delegazio bidez ustiatzea. Ordura arte ere hala kudeatua zen.

Segida hartzeko deialdi bat plazaratu zen, 2022ko abenduaren 31an bukatzen zen delegazioaren segida hartuko lukeen ekonomia eragile baten atzemateko.

2022ko abenduaren 21eko erabakiz, Herriko Kontseiluak "Xabi GARAT norbanako sozietatea" hautatzea onetsi zuen herriko zinema zerbitzu publikoko delegazio bidez ustiatzeko.

Frantziako eskaera publikoaren Kodeko L.3131-5 artikuluren arabera "kontzesiodunak urtero txosten bat aurkeztuko du zeinean kontratuaren egikaritzeari dagozkion kontu guztiak agertuko baitira eta obra edo zerbitzuen kalitatearen analisia ere bai".

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorraren L.1411-3 artikuluak dio "eskaera publikoaren kodeko 3131-5 artikuluan aipatzen den txostena helarazi-eta, batzorde erabakitzailearen hurrengo bilkuraren solasgaietan izanen da bilkurak aintzat har dezan".

Ikusirik, 2025eko agorrilaren 6an kontzesiodunak aipatu txostena helarazi ziola Auzapez jaunari. Txostena honakoari erantsia zaio Herriko Kontseiluak aintzat har dezan.

Barbier jaunaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik, Herriko Kontseiluak aho batez:

AINTZAT HARTZEN DU Frantziako lurralde kolektibitateen kode orokorreko L.1411-3 artikuluak finkatu 2024ko urteko txostena Kanboko Aiglon zinemaren ustiapenari loturiko zerbitzu publikoko delegazioaz.

HITZ HARTZEAK:

Roger Barbier jaunak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio 2022ko uztailaren 11an onartu zuela Aiglon zinema zerbitzu publikoko delegazio bidez ustiatzea, eta 2022ko abenduaren 21ean Xabi GARAT sozietatea hautatu zuela ustiapena egiteko.
2025eko agorrilaren 6an eskuratu txostenak bezero kopuru ona erakusten du: 28 694 ikusle 940 saiotan, hots bataz beste 30 ikusle saio bakoitzeko. Programazioak publiko zabalarentzako filmak eta arte-saiakera arlokoak orekatu ditu. Aiglon zinemak Art et Essai sailkapena eskuratu zuen publiko gaztearentzat. Haur eta familientzako animazio andana eskaintzen du, krakadak, irakurketa saioak, tailerrak eta programazio bereziekin.
Aiglon zinemak tokiko kultur bizian parte hartzen du Donibane Lohizuneko Nazioarteko Film Festibalarekin eta FIPADOC-ekin lankidetzan, film egileei harrera eginez, festibal sozial bat antolatuz eta zine-eztabaidak antolatuz herriko elkarte eta zerbitzuekin. Irudi-hezkuntza saioetan 4 800 ikasle bildu dira nahiz eta Pass Culture dispositiboa bertan behera gelditu den.
Finantzei dagokienez, 2024ko kontuek jarduera egituratua erakusten dute eta eredu ekonomiko orekatua. Horrela ustiatzaileak jardueraren garapena segi dezake. Bilan horrek herriaren sostenguaren garrantzia erakusten du, zinema kultur aniztasunean, herriaren erakargarritasunean eta tokiko animazioan duen zeregina azpimarratuz.

- **Informazioak.**

Auzapezak zenbait informazio partekatu ditu:

- *Dantza gela – Ezker-pareta: lanen baldintzazko zatia 2026ko lehen seihilekoan eginen da, bereziki amiantoa kentzeko eta gela behar bezala bukatzeko. 328 000 €ko eragina du finantzetan, PBan jadanik txertatua.*
- *Tenisa - Michel Labéguerie zelaia: existitzen denari bi paddle zelai gehituko zaizkio: 140 000 €. Lanen kostu orokorra 500 000 eta 600 000 € artean izanen da, eta geldituko dena kudeaketa eginen duen elkartearen gain izanen da.*
- *Ramsay eta Moulienia: Auzapeza Ramsay-ko buruzagiekin elkartu da Beaulieun aurreikusia den osasun arloko goi mailako formakuntza teknikoko egitura proiektuarentzat eta menturaz Euskal Hirigune Elkargoak Moulienian esku hartuko luke.*

Amaia Beyrie andereak osasun arloko goi mailako formakuntza teknikoaren kokapenaz xehetasunak eskatu ditu, zehazki ea Beaulieun ala Moulienian aurreikusten den.

Auzapezak erantzun dio osasun arloko goi mailako formakuntza Beaulieun kokatuko dela, lehenago erran bezala. Helburua da, ahalaz, Renaudin laborategiarekin lankidetzan, Moulienian kokatutako laborategi edo medikuntza materiala ekoizteko unitate bati lotzea. Ez da sortuko jarduera berririk laborategiari kalte egin diezaiokeenik.
Bestalde, Auzapezak jakinarazi du Christophe Puyodebat jaunaren proposamena ukan duela goxokiak ekoizteko jarduera baten garatzeko, txokolatearenaren osagarri, Musdehalsuenbordako ondoko terrenoan. Proposamen interesgarri iruditu zaio eta adierazi du printzipioz oniritzia emanen zaiola, baina Herriko Kontseiluaren erabakiak baldintzaturik. Proiektua epe luzeko alokairu kontratu baten bidez egin liteke, edo eraberritze alokairu baten bidez, edo elkar aditze bidez terrenoa salduz beti ere Domeinuetako zerbitzuaren ebaluazioaren ondotik.

Jean-Noël Magis jaunak Kanbon bizikleta pistarik ez dagoela salatzeko Bizi taldeak egin ekintza aipatu du. Bizik Frantziako Ingurumen Kodeko L228-2 kodeari egiten dio aipamen, zeinak bizikleta-pistak derrigortzen baititu hiri-bide bat egiten edo eraberritzen denean. Alta, eraberritzea eta mantenua ez dira ber gauza.
Zehaztu du artikulu hark salbuespena ezartzen duela topaketa-eremuentzat, non eremua partekatua baita eta non bizikletak ibil daitezkeen. Ondorioz kasu horietan bizikleta-pistak ez dira nahitaezkoak. Bizik aipatzen zuen Tauletxea karrika topaketa-eremua denez Biziren irakurketa ez da zuzena. Interpretazio oker horrengatik nota ezkor justifikatu gabea eman dute. 20 km/ordu eremu guzietan ez da bizikleta-pistarik egiteko obligaziorik.

Auzapezak Jean-Noël Magis jauna eskertu du Bizik egin irakurketa akatsei buruzko xehetasunengatik, eta azpimarratu du ez dela akats bakarra izan.

Solasgai guziak landurik, Auzapezak Herriko Kontseiluaren saioa 23:20ean hetsi du.

Joana LACARRA
Saioko idazkaria

Christian DEVEZE
Kanboko Auzapeza